


Aretxagazeta

ARETXABALETA / Eguena / 2004ko abenduaren 23a / 364. zenbakia

2004 urteari begiratua ARETXABALETA



Zorionak

eta Urte Berrí On

25.
urteurrena


1979-2004

EGUZZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



JAUSORO OSTATUA

Zorionak eta
urte berri on!


Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

KALEINKESTA/ Atxabaltarako zelako urtie izen da fateko dauena? Eta zer eskatuko zeuke?



OLAIA BARRUTIA
ikaslie



BELÍ MANTECA
langillie



JOSE LUIS PASAMAR
langillie



TOMASA TEJADA
langillie



FRANCISCO JAVIER GIL
langillie



ANE GARCIA
ikaslie

Aurten oso jente gutxi ibilli da kalien, batez be aste bukaeretan. Eskerrak Gazte Ekimenak zeozer antolaketan dabillena... Baiñe zapatu gabetan Atxabaltan ez da ezer egoten.

Herrixen urtie ondo fan da, asko edifikau daue, eta Atxabaltak onera egin dau. Datorren urterako, subentzionauteko etxe gehixau eskatuko neuke, oso karu dauz eta.

Herrixen ez da aparteko nobedadeik egon. Nahikue edifikau daue, baiñe giroik bape ez dau. Atxabalta giro aldetik hilldde dau, aste barruen eta aste bukaeretan ez da ezer egoten.

Hamaxei urteko neska-mutikuendako ez da ezer egoten, eta nik nuek horixe eskatuko neuke datorren urterako: edade horretako gaztiendako aktibidadiak prestaketie.

Herrirako ez dakit, lau hillebete dala etorri naz eta. Neuretako, behintzet, urtie interesantie izen da. Herrirako zer eskatu? Erdialdien bizikletak ixteko zeozer jartie ondo egongo litzake.

Urtie ondo fan da herrixen, baiñe aste bukaerak aspergarririk izeten die, Atxabaltan ez da gaztiondako ezer egoten. Eskerrak Kua-drillategi talde dauela, eta horrekin behintzet zeozer.

ETABARRUAN...

GAINBEGIRATUA /3
URTEA DATUTAN /4
ONENA ETA TXARRENA /5
IRUDIAK /22

URTEARI GAINBEGIRATUA

Urtarrila /6
Otsaila /7
Martxoa /8
Apirila /9
Maiatza /10
Ekaina /12
Uztaila /15
Abuztua /16
Iraila /17
Urria /18
Azaroa /20
Abendua /21



ZURIETABELTZ



ARRITXU OLIDEN / Alkatea

2005ean kultura etxea egiten hasi

Urtea bukatzen ari da, eta herritar gehienak bezala, udaletxean ere dagoeneko 2005. urteari begira lanean ari gara. Herrian badugu zeri heldu datorren urtean, proiektu handi edo txikiagoak, bada zertan lan egin. Hala ere, datorren urteak kultura etxe berriaren urtea behar du izan. Asmoa nahiko aurreratua dugu eta urtarrilerako proiektua gertu izango da. Beharrezkoak diren tramiteak egin ondoren, herriko plazan dagoen kultura etxea bota eta berria egiten hasiko gara. Jakina, proiektua eskutan Diputaziara joateko asmoa dugu dirulaguntza eske. Hala ere, ez dugu itxaropen handiegirik, eta Udalak beregain hartu beharko du azpiegitura berriaren kostua. Baina esan beharrik ere ez dago, kultura etxea beharrezkoa dela Aretxabaletan, eta proiektua abiarazi egingo dugula.

Urkulun ere laster hasiko dira lanak, Diputazioak atera baitu obra lehiaketara. Lanak aurten hasi behar ziren, baina hitzarmenarekin egon diren gora beherak tarteko, atzeratu egin dira lanak.

“Oraingo honetan herrian egingo ditugun hainbat lan gogora ekarri ditut, baina herria egunero eraikitzen dute herritarrek”

Urteek aurrera egin ahala herria aldatuz doa. Konturatu zineten Errotetxe inguruan aldaketa batzuk egiten hasi garela, Cerrajera Valle Leniz lantegia bertan kokatuko delako.

Hala ere, oraingo honetan herrian egingo ditugun hainbat lan gogora ekarri badituz ere, esan beharrik ere ez dago Aretxabaleta hori baino askoz ere gehiago dela, eta egunero-egunero herritarrek eraikitzen dutela herria. Bukatzeko, aretxabaletar guztioi jai zoriontsuak igaro ditzazuela opa dizuet; urtea ondo bukatu eta datorrena hobeto hasi, guztiontzat oparatu izanez.



M.J. ARETXAGA / Herritarra

2004 urtie badoiela lagunok!

Ez dakit zuei pasetan ete jatzuen, baiñe urtien baloraziñue egittie eskatu, eta ze urtetan gazten be ez dot jakituen. Oin be hori pasau jat: bukaketan dauena 2003 edo 2004 urtie ote zan beitu biher izen dot. Izen be, beti esaten dana: zelako aguro pasetan dan urtie!

Disfratau bihera dauela, momentue bizi ... horreik gauzok ez die alperrik esaten. Horregatik, datorren urterako dittudan asmuetan lehenengo jarri dittut horreik danok. Herrirako baiñe zelako urtie izen da fateko dauena? Nik esango neuke makiña bat obren bukaerie ekarri dauela. Eta hori ondo dakixe eskoletakuek. Batetik, Arizmendik ikastola barrixe estrenau dau aurten, eta Kurtzebarri eskolakuek be herriko plazako edifiziuen hasteko aukerie izen daue. Eskolen urtie izen da aurtengue.

“Makiña bat obren bukaerie ekarri dau urtie. Hori ondo dakixe eskoletakuek. Eskolen urtie izen da”

Eskoletauek asetuta dittue euren biherak, baiñe herrixek badauko biher izugarri bat. Eta izugarrixe esaten dot, sekulakue dalako. Kultura etxe bat biher dau Atxabaltak, eta ez dakit Donostiara manifestaziñuen fan biher garen edo zer, baiñe nunbaitetik etorri biherko da dirue etxe hori egittie. Ez da normala, urtie fan eta fan, eta ondiokan kulturako gauzeta-rako toki apropos bat ez eukittie. Nik uste dot udaletxiaren asmuen zerrendan lehenengotarikue izen biher dauela horrek. Eta Diputaziñora manifestaziñuen fan biher garela edo beste protestaren bat egin biher dala... ba aurre-ra! Izen be Urkulu, urteko beste protagonistie, konponketie ondo dau, eta egin biherreko lana da hori, baiñe harek moruko premiñie dauko kultura etxiek. Datorren urtien ikusiko ete dou, obran sikiera?

URTEA DATUTAN

Urtea joan da eta hainbat kontu, irudi eta datu utzi dizkigu gogoan. Datuak kontuan hartzen hasita mila zerrenda egin daitezke, baina guk bi eratakoak egin ditugu: alde batetik, aisialdia hobeto pasatzen laguntzen

diguten egunkari, liburu, aldizkari eta bideo hartuenak zeintzuk izan diren jakin gura izan dugu; eta, bestetik, herrian jaiotakoak eta hildakoak zerrenda dago. Datu guztiak abenduaren 19ra bitartekoak dira.



LIBURU hartuenak

ELEBERRIAK GAZTELANIAZ


1. 'El código Da Vinci' Dan Brown
2. 'El bosque de los pigmeos' Isabel Allende
3. 'La noche del oráculo' Paul Auster

ELEBERRIAK EUSKARAZ

1. 'Soinujolearen semea' Bernardo Atxaga
2. 'Zirkulua' Andoni Urtzelai
3. 'Atlas Sentimentala' Patxi Zubizarreta

UMEEN LIBURUAK

1. 'Petunia Hirian' Kukuxumusu
2. 'Gulliverren bidaiak' antxumeak
3. 'Otsoa eta zazpi antxumeak'



BIDEO hartuenak

1. 'Días de futbol' David Serrano
2. 'Piratas del Caribe' Gore Verbinski
3. 'Master and comander' Peter Weirguion
4. 'The italian job' Gary Gray
5. 'Buscando a Nemo' Andrew Stanton
6. 'El ultimo samurai' Edward Zwick
7. 'Gold mountain' Anthony Minghella
8. 'Oceanos de fuego' Joe Johnston
9. 'El dia de mañana' Roland Emmerich
10. 'Yo, robot' Alex Proyas



DVD hartuenak

HAURRENTZAKO DVD-AK

1. 'Chihiroren bidaia' Hayao Miyazaki
2. 'Buscando a Nemo' Pixar
3. 'El Cid: la leyenda' José Pozo

HELDUENTZAKO DVD-AK

1. 'La ley de Herodes' Luis Estrada
2. 'Buffalo 66' Vincent Gallo
3. 'La vida es silbar' Fernando Perez
4. 'La Pelota Vasca' Julio Medem
5. 'En Construcción' Jose Luis Guerin
6. 'Fahrenheit 9/11' Michael Moore

Urtean HILDAKOAK

URTARRILA

- Jose Lizarralde Arkauz (4ean)
Juan Maria Idigoras Arregi (6an)
Caridad Fidalgo Moro (11n)
Felix Mendizabal Beitia (13an)
Manuel Otero Montero (29an)
Jose Jauregi Errasti (30ean)

OTSAILA

- Cesareo Manso Mateos (2an)
Agustina Galdos Bascaran (2an)
Consuelo Polo Boyero (5ean)
Maxima Txintxurreta Ugalde (23an)
Sinforosa Visitacion Fernandez Gonzalez (27an)

MARTXOA

- Josefa Cuellar Del Valle (7an)
Margarita Lonbide Espiñeira (24an)
Jose Biain Arriaran (27an)

MAIATZA

- Maria Angeles Arenaza Lasagabaster (30ean)

EKAINA

- Millan Arenaza Urrizar (18an)

UZTAILA

- Isabel Garcia-Etxabe Zuazua (2an)
Ignacia Lasuen Ortuzar (27an)

ABUZTUA

- Pedro Antxia Ezpeleta (29an)
Nati Uriarte Ruiz de Eguino (29an)

IRAILA

- Francisco Rus Cejudo (6an)
Alberto Etxeberria Uribe-salga (24an)

URRIA

- Tomas Besa Fernandez (2an)
Mariano Otero Iregi (12an)

AZAROA

- Encarnacion Intxauspe Perez (4an)
Ancension Reñero Corres (8an)
Idefonso Cardenal Arostegi (21ean)

ABENDUA

- Pablo Arana Zubia (4an)
Esteban Gorroño Arregi (8an)
Maria Atxaga Zendoia (15ean)

BIZILAGUN kopurua

6.324

Jaiotakoak

69

Hildakoak

29

Etorritakoak

134

Joandakoak

143

EGUNKARI salduenak

1. 'EL DIARIO VASCO'
2. 'Gara'
3. 'Marca'
4. 'Deia'
5. 'Mundo Deportivo'

ALDIZKARI salduenak

1. 'PRONTO'
2. 'Hola'
3. 'Qué me dices'
4. 'Entreviu'
5. 'Muy Interesante'

Egunik BEROENA

2004ko abuztuaren 1a

39 °C

Egunik HOTZENA


2004ko martxoaren 3a

-3 °C

Egunik EURITSUENA

2004ko azaroaren 10a

55,8 L



ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA


Gabonetan edertasuna opari egin

Gorputza eta aurpegi tratamenduetarako elektroterapia metodo berriak

Gabon zoriotsuak igaro!

ONENA ETA TXARRENA

Urtean gorabehera eta kontu asko izan dira. Batzuk onak, beste batzuk erdipurdikoak, eta txarrak ere bat baino gehiago. Denok ditugu 2004. urtean gertatutako kontutxo eta pasadizoak. Hala, urteko onenaren eta txarrenaren inguruan hausnarketa txiki bat egin dezaten eskatu diegu hainbat herritarri. Zazpi izan dira aukeratuak, eta elkarte edo talde baten irudi direlako eskatu diegu euren iritzia. Hona hemen haiek esandakoak.



AITOR BENGOA
Naturzalea



AITOR ALCAIDE
Arlutz Xake taldeko kidea

↑ AHT GELDITZEKO EKIMENA
Joan den azaroan manifestazioa egin zen Donostian abiadura handiko trenaren aurka, eta AHT Gelditu elkarlanak deituta. 3.000 lagun inguru elkar-tu ginen bertan.


↑ EUSKAL LIGAN JARRAITU
Arlutz Xake taldeak lortu du aurten ere Euskal Ligan jarraitzea. Orokorrean, denboraldi polita egin dugu, eta datorren urtean derbia izango da Arrasatekoen aurka.

↓ INFORMAZIO FALTA
Abiadura handiko trenaren inguruko informazio gutxi ematen du Jaurlaritzak, eta sekretismo handia dago. Euskal Herriko ingurumenaren etorkizuna kolokan dago.

↓ JAURLARITZAREN JARRERA
Eusko Jaurlaritza saiatu zen xake kirolen zerrendatik kentzen. Horren aurrean, Euskadiko xake taldeek presioa egin genuen, eta lortu Jaurlaritzak asmoa bertan behera uztea.



NEREA ARRESE
Euskal Herriak Bere Eskolako kidea



ANGEL LOIDI
Elkarriko kidea



NURIA AGIRRE
Loramendiko lehendakaria



ANGEL BARANDIARAN
Abesbatzako zuzendaria



GOIO ARRIETA
Murruxoko kidea

↑ IKASTETXEKIN HARREMANA
Herriko ikastetxeekin harremanetan hasi gara aurten, eta horietako baten, Kurtzebarrin, elkarlana garatu eta euskal curriculumaren inguruan urratsak ematen hasi dira.

↑ BAKE KONFERENTZIAREN ALDE
Aurten makina bat bider atera gara kalera, Elkarrik abian jarriko duen Bake Konferentziaren aldeko sinadurak batzera, eta aretxabaletarrek ondo erantzun dute.

↑ EUSKARAREN EGUNA
Arrakastasua izan zen Loramendik aurten antolatutako Euskararen Eguna. Bestalde, gaztetxoei zuzenduta, *Berbeta Berua* proiektua hasi dugu eta horrek ere harrera ona izan du.

↑ SANTA AGEDA DOINUAK
Aspaldi, herrian, Santa Ageda egunean nagusi izaten ziren doinuak eta bertsoak berreskuratu ditugu aurten. San Migeleko kontzertua ere oso ondo joan zen.

↑ III. MENDI MARTXA
Aurten III. Mendi Martxa antolatu du Murruxok eta oso arrakastatsua izan da, bereziki, parte-hartze handia egon delako. 28 kilometroko ibilaldia prestatu genuen antolatzaileok.

↓ HERRIAN ZABALTZEA FALTA
Aretxabaletarren artean hezkuntzaren inguruko ardura zabaltzeko gai ez gara izan. Ikastetxeetan ari dira alor hori lantzen, baina hezkuntza euskaldunak denon ardura behar du izan.

↓ GATAZKAK JARRAITZEN DU
Oraindik ere alderdi batzuk elkarrizketaren aurka azaltzen dira. Nahiz eta gatazkaren konponbidea elkarrizketatik etorriko den, batzuek horri bizkarra ematen diote.

↓ EUSKARA GUTXIAGO
Aurten ezagutzera eman dituzten datuen arabera Aretxabaletan behera egin du euskararen kale erabilerak. Hau da, jende gutxiagok hitz egiten duela euskaraz kalean.

↓ TOKI EGOKI GABE
Oraindik herrian ez dago kulturarako eraikin egoki bat. Abesbatzako kideok leku egoki baten falta ikusten dugu, bereziki kultura emanaldietarako. Entseguetarako ez dugu arazorik.

↓ ALBERTO JOAN ZAIGU
Aurten hil da Alberto Etxebarria, Murruxoko elkartearen sortzaileetarikoa bat izan zena, eta hasierako urteetan presidente. Murruxoren alde lan handia egin zuen Albertok.

OPEL

Mundua ikusteko hainbat eta hainbat modu daude...
Gura zenuke zeurea aukeratu?

OPEL ASTRA BERRIA

ONDO
PASA
GABONAK!

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
Tel.:943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20



URTARRILA



"Odola ez da fabrikatzen den gauza bat eta beti izan behar da gertu hartzeko"

RAMON ERAÑA/ ODOL EMAILEA
2004-01-13



"Españak barrez, bide arteza boikotan bidez marketan dau"

IRATI PAGOAGA/ IRITZI EMAILEA
2004-01-30



Aretxabaletako Institutuaren 25. urteurrena ospatzen hasi ziren

Institutuaren inguruko liburuxka kaleratu, eta hainbat ekitaldi antolatu ziren 25. urteurrena ospatzeko. Bailarako gazteek beste ikasketa batzuk egiteko aukera izan zezaten sortu zen Aretxabaletako Institutua. Lanbide-heziketako eskolak ematen hasi ziren 80 bat ikasleri. Urtarrilaren 30ean egin zuten ekitaldi ofiziala urteurrena ospatzeko. /2004-01-30

HILEKOESALDIA

"Lanbide horietan aritu eta oraindik bizirik daudenak elkarrizketatu ditugu; hori da lan honen balioa"

MARIA AGIRRE/ KAZETARIA
2004-01-20

HILEKODATUA

6.284

BIZTANLE URTARRILEKO LEHENENGO EGUNEAN

2003an baino 39 biztanle gehiago zituen Aretxabaletak. Herrira 166 lagun etorri ziren, eta herri-rik kanpora, 141 joan. /2004-01-01

LORAMENDI LITERATURA LEHIAKETA

Urtetik urtera gazte gehiagok hartzen du parte Loramendi Literatura Lehiaketan. Aurten, 320 izan ziren. /2004-01-22

JAI BATZORDEKO BILERA

Jai batzordea osatzeko deialdia egin zuten kultura sailak herritarrei. Lagun bi bakarrik agertu ziren. /2004-01-21

AIPAGARRI



BEÑAT ETXABE
Futbolaria

Realeko infantil txikiak, tartean Beñat, txapelketa ona jokatu zuten Kanariar Uharteetan. Horregatik omenaldia egin zuten Realeko talde nagusiak. /2004-01-10



IBON ANTERO
Hiruax elkartekoa

Ekuadorren, urtebete pasa ondoren, bertan bizi izandakoaren berri eman zuen. Kitxuei, kooperatiba bat nola kudeatu azaltza joan zen Ibon bertara. /2004-01-30



JESUS MARTINEZ
Taxi gidari ohia

Urtarrilaren 17an, 50 urte bete ziren Jesus Martinez Errioxatik etorri zela Aretxabaletara. Esan zigunez, oraindik ondo gogoratzen zuen egun hura. /2004-01-17

HIRIGINTZA

Lurralde Zatiko Planaren gaineko mozioa onartu zuten

Urtarrilaren 12an egindako osoko bilkuran, Lurralde Zatiko Planaren gaineko mozioa onartu zuten zinegotziek. Era horretan, Udalak gestioen berri emateko konpromisoa hartu zuen, eta herritarrei eztabaidatzeko eta parte hartzeko aukera emango zitzaiea agindu

zuten. Arritxu Olidenek adierazi zuen, ibarreko alkate batzuk Sabin Intxaurraga sailburuarekin batzartu zirela, eta hark esan ziela herritarren iritziak kontuan hartuko zituztela. PSE-EE alderdiko zinegotzia ezik, gainontzekoak izan ziren bilkuran. /2004-01-12

GIZARTEA

Aretxabaletaren berri emateko bideoa aurkeztu zen

Kañoan herriaren berri emateko, Aretxabaletaren gaineko bideoa egitea agindu zuen Udalak, eta urtarrilaren hasieran aurkeztu zuten. Herriaren bizimodu eta historiaren berri ematen da bideoan, besteak beste. Era berean, eraikin eta auzoek euren tarte dute, eta

baita jaiek ere. Guztira 1.500 bideo jarri zituen salgai, kultura etxean, ludotekan eta kirol etxean, sei euroren truke. B-30 produkzio etxek egin zuen bideoa, eta aurkezpenean enpresako ordezkari bat izan zen Arritxu Oliden alkatearekin batera. /2004-01-10

FUTBOLA

UDA, presidente eta batzordea osatzeko kide barik


Zail jarri zitzaizkion gauzak UDA taldeari. Zuzendaritza Batzordea berritzeko batzarrerera, jende ugari hurbildu, baina inor ez zen animatu presidente izateko bere burua aurkeztera. Rafa Etxandiak, gainera, UDAk bizi zuen egoeraren berri eman zuten, batzarrerera hurbildutakoiei. /2004-01-16

J.J. ITURGINTZA
IRURE
URA
GASA
KALEFAKZIOA


Zorionak eta urte berri on!

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187



OTSAILA



"Asko gogoratzen naiz Aretxabaletarekin, pasarte bizienak eta gozoenak"

JESUS ATXA/ EUSKALTZALEA

2004-02-02



"Aspaldian denon ahotan dabil Aretxabaletan ez dela batere girorik"

EDORTA MENDIETA/ IRITZI EMAILEA

2004-02-20

HILEKOESALDIA

"Musika ikasleak taldean parte hartzen ikasten du. Diziplinatua eta ordenatua izan ohi da"

MARTA IZAGIRRE/ IRAKASLEA

2004-02-26

HILEKODATUA

19

FAMILIA UGARI ZENBATU ZITUZTEN HERRIAN

Hil hartan 19 familia ugari zenbatu zituzten herrian, gehienak hiru seme-alabarekin. Udalak kirol etxe-ko kuota jaitسي zien. /2004-02-13



Eguraldi bikaina Aratuste-domekan

Eguraldi kaskarra izan genuen aurreko egunetan, baina Aratuste-domekan eguraldi eguzkitsua izan zen nagusi.

Jende ugari jantzi zuen mozorroa, eta kalera irten zen egun osoan ondo pasatzeko asmoz. Mozorro lehia- ketako epaimahaiak ez zuen lan errazik izan, ondo pentsatutako eta landutako mozorroak zeuden eta. Hala ere sariak banatu, eta 16 urtetik gorakoetan, hauek jaso zuten, lehenengotik, bosgarrenera: *pirata taldea* (egurrezko ontziarekin); *pirata taldea* (plastikozko ontziarekin); *troiatarrak*; *Frantziako Iraultza* eta *60ko hamarkada*.

Umeen atalean, berriz, hauek jaso zuten saria, lehenengotik bosgarrenera: *Erdi Aroko neskak*; *Grease*; *Ambiciones*; *Unibertsolariak* eta *Euskadi City*. /2004-02-22

ANDER ARIETALEANIZBEASKOA

↑ Argentinatik, Akonkagua menditik otsailaren 19an itzuli zen aretxabaletarra. Zortzi lagun joan ziren /2004-02-13

NESKAK ATERATZEKO LARRI IBILI ZIREN

↓ Aurten larri ibili ziren Santa Ageda mutilak neskek ateratzeko orduan. /2004-02-13

AIPAGARRI



ROSA COBO
100 urte

Mendea, 100 urte bete zituen Rosa Cobok. Tamalez aurten hil da, bere senarrarekin Aretxabaletan bizi zen emakumea. Jaiotzez altsasuarra zen. /2004-02-29



JON MAIA
Abeslaria

Karidadeko Benta taldeko kideak eta abeslaria, Jon Maia, etorri ziren emanaldia eskaintzera. Elurte handia egin zuen, baina herrira etorri ziren. /2004-02-27



ITXARO ZUBILLAGA
Kazetaria

Asteheneneko Goienkariaren lehenengo zenbakian, hamar galdera laburreko tartea egin zioten. Sagardozalea ez, baina parrandak gustuko dituela esan zuen. /2004-02-16

GIZARTEA

Gaztetxea aldarrikatzeko eserialdia egin zuten gazteek

Gazte talde batek eserialdia egin zuen udaletxe aurrean, gaztetxea edo egoteko lokalak eskatzeko.

Udalak gaztetxea itxi zuela urtea pasa zela eta, herrian gazteek egoteko tokirik ez dutela salatu zuten. Beti kalean egotera behartuta daudela iritzi zioten.

Udalari urtean zehar behin eta

berriz hainbat eskaera egin ondoren, ez zutenez erantzunik lortu, eserialdia egitea erabaki eta eskariak aintzat hartzea eskatu zuten. Ekintzan parte hartu zuen gazte batek adierazi zigunez, udaleko ordezkariarekin bilera egiteko asmoa zuten, eta batzar horretan eskariak egin. /2004-02-13

HERRI GAZTETXE 1 LOKALAK ORAIN!



Eserialdia egin zuten udaletxe aurrean.

AURREKONTUA

la zazpi milioi euroko aurrekontua onartu zuen Udalak

EAJ-EA eta Aralar alderdiko zinegotzien aldeko botoekin onartu ziren udal aurrekontuak. PPko zinegotziak aurka bozkatu zuten, eta PSE-EEkoa ez zen bilkuran izan. Diru gehien, lursailak erosteko eta herriko kaleen saneamendu lanetarako zuzentzea erabaki zuten. /2004-02-16

EGURALDIA

Elurra egin zuen, eta ohiko jolasak eta oztupoak eragin zituen

Otsail amaieran elurte handia izan genuen, eta bailaran ez ezik, herrian ere ganoraz egin zuen elurra. Ondorioz, makina bat oztupo izan zen bereziki errepideetan, baina egunerokotasunetik ihes egiteko ere balio izan zuen. Txikienek ere nahikoa jolas egin zuten elurretan. /2004-02-28



Lagun Aro, Sanitas, Adeslas,...

- REHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA

Belorrieta 6-7
Tel.: 943 79 95 64
20550 ARETXABALETA

Zuhaitzek, Andonik, Xabik eta Maitek zorionik beroenak opa dizkizute aretxabaletar guztioi !!

MARTXOA



*"Lotsa sentitu nuen
GOITBk Inauteriei buruz
egindako erreportajeaz"*

RESU ABASOLO/ IRITZI EMAILEA
2004-03-12



*"San Kanuto egunien bai
girue, azken aldixen ez
geuken halako girotxorik"*

M.J. ARETXAGA/ HERRITARRA
2004-03-18

HILEKOESALDIA

**"Haitiko popula-
zioaren gehiengoa
miserian bizi da,
eta amorrua
eragiten du"**


MARGA GARMENDIA/
HAITIN ARREBA DU BIZI IZATEN
2004-03-09

HILEKODATUA

125

**ELKARRIK EGUN BATEAN
SINADURA UGARI BILDU**

Bake konferentziaren aldeko sinadura bilketan, 125 sinadura bildu zituen Elkarrik. Zapatuz egin zuten bilketa. /2004-03-06



Martxoaren 14an egindako hauteskundeetan EAJk boto gehien lortu

Parte-hartze handia izan zen Espainiako hauteskunde orokorretan. EAJ alderdiak 1.128 boto lortu zituen herrian. Alderdi sozialistak, berriz, 648 boto, eta Aralar-Zutik koalizioak 544. Bergarako ekimenarentzat izan ziren 511 boto, eta EArentzat 461. Azkenik, PPK 301 eta EBak 287 boto lortu zituen Aretxabaletan. Eguna lasai joan zen herrian. /2004-03-14

ANJEL ARRESE ETA MANOLO ZUBILLAGA

↑ Omenaldia egin zieten Leintz Gatzagan, txirrindularien alde egindako lana eskertzeko. /2004-03-26

TXAKURREK LORATEGIAK ZIKINTZEN SEGI

↓ Nahiz eta Udalak bandoa kaleratu zuen, martxoan txakur kakez beteta jarraitzen zuten herriko lorategiek. /2004-03-18

AIPAGARRI



IVAN VAZ
Diseinatzailea

Desfilea egin zuen Gasteizen, eta hinduen kultura izan zuen gogoan arropak diseinatzerakoan. Urre-koloreko ehunekin egin zituen arropak. /2004-03-26



MARKEL URIARTE
Trialsina

Irabazi egin zuen, Gipuzkoako Trialsin Txapelketako azkenurreko proban. Finala jokatu gabe, Gipuzkoako txapel-dun izendatu zuten Markel. /2004-03-14



ELI BERRIDI
Ikaslea

Arizmendiko ikasle batzuk Britainian izan ziren martxoan, eta tartean zen Eli Berridi ere. Frantseza ikasten ari direlako egin zuten bidaia hori. /2004-03-18

KIROLA

Pilotari ezagunak etorri ziren Muru-Alde elkartera

Julian Retegi, Aimar Olaizola eta Iñigo Simon medikuak etorri ziren Muru-Alde elkartera, pilotaren gainean berba egitera. Guztiek ere giro bikaina sortu zuten elkartean, eta gerturatutakoek galdera ugari egin zizkieten. Jarraitzaileen iritziak ere entzun zituzten pilotariek. /2004-03-02

GIZARTEA

KZguneak urtebete egin zuen eta, balorazio ona

Markole kalean dago KZgunea, eta martxoan urtea bete zuen. Makina bat herritar joan da bertara, Interneten nabigatzen eta postak bidaltzen ikastera. Arduradunen esanetan, bereziki 40 eta 50 urte inguruko jendeak parte hartu du antolatutako ikastaroetan. /2004-03-12



Martxoan bete zuen urtea KZguneak.

KIROLA

Mikel Etxabe erdi biluzik agertu zen 'Interviú' aldizkarian

Interviú aldizkariaren martxoaren hasierako alean, Xerez CD taldeko jokalaria, tartean Mikel Etxabe aretxabaletarra, erdi biluzik agertu ziren. Lau hilabete zeramaten ezer kobratu barik, eta egoera hori salatu nahi izan zuten. Jokalari guztiak agertu ziren argazki batean. /2004-03-18

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea
ARETXABALETAN
Tel.: 943 77 00 33 / 79 42 56



FELIX PAGALDAY


Zorionak eta urte berri on!

APIRILA



"Athleticek dituen jokalariai edukita ondo dabil. Prieto oso ondo"

P. M. ZUBIZARRETA/ FUTBOLZALEA
2004-04-05



"Beti diot enpresa baten aktiboa langileak direla: prestakuntza duena..."

VICENTE VICENTE/ GERENTEA
2004-04-26



Inguruko taldeek herrian ospatu zuten Dantzari Eguna

Apirilaren 25ean ospatu zen herrian Dantzari Eguna, inguruko herrietako dantza taldeek antolatuta. Antzuola, Arrasate, Bergara, Elgeta eta Oñatiko 150 dantzari inguru batu ziren herriko plazan. Hauen ekitaldia bukatutakoan, Iparraldeko Dantza Pika taldearen emanaldia izan zen, eta giro ezin hobea sortu zen. Herritar askok egin zuen dantzan. /2004-04-25

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

16

"Noizko turismoarekin zerikusia daukaten gauzak lantzeko sail bat udaletxean? Noizko plan bat?"

EDORTA MENDIETA/ IRITZI EMAILEA
2004-04-23

LAGUN AURKEZTU GIZARTE LANGILE POSTURA

Udaleko Gizarte Sailerako langilea hartzeko deialdia egin, eta 16 lagun aurkeztu ziren. Azterketa bi egin zituzten. /2004-04-23


ERRASTI ANAIK UDABERRIKO TXAPELDUNAK

Urdetxuare 22-3 irabazita, Udaberriko Pilota Txapelketako irabazle izendatu zituzten. /2004-04-07

AUTOBUS GELTOKIA KENDU ETA BERRIA IPINI EZ

Etxebizitzak egiteko, erdialdeko autobus geltokia lekuz aldatu, baina babeslekurik ez zuten jarri. /2004-04-02

AIPAGARRI



BIXENTE ETXEANDIA
UDAKo presidentea



KEPA ERRASTI
Antzezlea



MIKEL URIBETXEARRIA
Kirol zinegotzia

"UDAK presidente figurie falta dau, hori topaute beste batzorde kidiek topauko gittuzke". Hala mintzatu zitzaigun ordu-ra arte presidente izandakoa. /2004-04-2

Antzezlan batean parte hartu, eta Kur-saalean aurkeztu zuten. Guztira 200 lagunek esku hartu zuten, eta Kepak abestu eta dantzan egin zuen. /2004-04-30

UDAKo zuzendaritza aldaketa zela eta, gurasoak inplikatzin hastea beharrezkoa zela esan zuen. Lanak banatzeko ordua zela adierazi zuen. /2004-04-2

GIZARTEA

Agustindar mojek ehun urte bete zituzten herrian

Ehun urte bete ziren agustindar elkarte Aretxabaletara heldu zela. 1904ko otsailaren 9an Arrasatek Aretxabaletara joan ziren elkarte osatzen zuten 16 mojak.

Aretxabaletara etorri aurretik Arrasaten zuten komentua agustindar mojek. 1564. urtea baino lehenagotik zeuden han, bai-

na eraikinaren egoera kaskarra zelako, Aretxabaletako Otolara bainuetxea erosi zuten 75 mila pezetaren truke. Duela 22 urte hori ere utzi egin zuten eta orain duten etxea eraiki. 48 urte eman dute irakaskuntzan, eta aurtelan hori ere agur esan diote mojek. /2004-04-26

EKONOMIA

Cerrajera Valle Leniz enpresa lekuz aldatzeko asmoa

Errotetxe baserri osteko lurretan Industrialdea egiteko asmoa dagoela eta, Cerrajera Valle Leniz enpresa bertan jarriko dutela jakin genuen.

Aretxabaletako sarreran kokatuko duten industrialdea Ortubai SA enpresak eraikiko du. Cerrajera Valle Leniz enpre-

sarendako izango da eraikinik handiena: 6.500 metro koadro. Udalak bestalde, 882 metro koadro izango ditu bertan. Udalak herritik atera gura du Valle Leniz lantegia, eta lantegia dagoen tokian 121 etxebizitza egin. Horregatik, lursail horren kalifikazioa aldatu egin zuten. /2004-04-2

HIRIGINTZA

Beroa gunean etxebizitza erosi zutenek bilera

Eraikuntza enpresarekin hainbat gauzatan ados ez zetoze eta, Beroa gunean etxebizitza erosi zutenak bilera egin zuten. Kalitate eskaseko materialak, eta promotoreen aldetik erantzun falta azpimarratu zituzten bileratan. Promotoreak, berriz, hitza bete zuela adierazi zien. /2004-04-7

CREATIVO

ARQUERO

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4 - EO -11 Aretxabaleta
943-790151 608-772867 679-455764

Urte Berriaren Sarreran
CONSTRULAN S.L. ARQUERO-KO
LANGILE GUZTIEK OPA DIZKIZUETE
JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRION!

MAIATZA



"Eraikuntzako grebak ez du guregan eraginik izan, normal lan egin dugu"

J.J. AZKARATE/ AROTZA
2004-05-28



"Guk, berriz, jatekoean eta tabernan asko igarri dugu, jende gutxiago dator"

NEKANE QUINTAS/ GUREA JATETXEA
2004-05-28

HILEKOESALDIA

"Plazak utzita ere, sekula ez dut utzi bertsoaritza. Elkartearekin kolaboratzen ibili izan naiz"

ARANTZAZU LOIDI/ BERTSOLARI OHIA
2004-05-21

HILEKODATUA

38

GAZTETXOK EGIN ZUTEN JAUNARTZEA

Maiatzean hainbat gaztetzok egin du jaunartzea, eta aurten 38k egin dute, horietako gehienek Parrokian. /2004-05-28



JENDE UGARI JOAN ZEN ANTZERKIA IKUSTERA

Bigarren aldiz, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanaren eskaini zuten herrian, eta jende ugari joan zen. /2004-05-28


XAKEA KIROLA EZ DELA ESAN JAURLARITZAK

Aretxabaletako xake jokalariek kezkatuta agertu ziren, Jaurlaritzak xakeaz esandakoa entzunda. /2004-05-07

Inkesta baten arabera, gutxiago erabiltzen da euskara herrian

SEI kultura elkarteak euskararen kale erabileraren gaineko neurketa egin, eta maiatzean datuen berri eman zuen. Emaitzen arabera, Aretxabaletan %43k egiten du euskaraz kalean. 2001 eta 2003 artean, 12 puntu jaitsi da kale erabilera. Azterketa egin zutenean, 6.081 biztanle zituen herriak, eta 2.899 euskal hiztun zenbatu zituzten. /2004-05-21

AIPAGARRI



JESUS ATXA
Euskaltzalea



JUANMA MARTINEZ
Korrikalaria



JOKIN ANTIXIA
UDako presidentea

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso zuen, jaiotzez aretxabaletar denak. Era horretan, euskararen alde egindako lana eskertu zioten. /2004-05-08

Aizkorriko mendi maratoian parte hartu, eta 68. postuan sailkatu zen, 5 ordu eta 20 minutu eginda. Fernando Uribesalgotok ere parte hartu zuen. /2004-05-23

UDako zuzendaritza berria aurkeztu zen, eta Jokin Antxiak presidente kargua hartu zuen. Nahikoa kosta zen zuzendaritza taldea eratzea. /2004-05-24

KULTURA

Euskararen eta Otxala Zelaiko egunak ospatu ziren

Eguraldi ona lagun, giro onean ospatu ziren Euskararen, eta Otxala Zelai egunak, zapatu eta domekan. Euskara izan zen nagusi, Loramendik antolatutako jaietan. Gazta dastatzea, jotak, eta batukada, besteak beste. Hala ere, Euskararen Egunaren biharamunak zapore gazi-goza utzi zuen

herrian, edukiontzia iraulita, zuhaitzak aterata eta kaleko bankuak apurtuta agertu baitziren domeka goizaldean. Domekan, berriz, erromeria giroa izan zen Otxala Zelain. Eta Urkulun egindako krozean, Jose Javier Cuadrado izan zen garaile, senior mailan. /2004-05-25



Gazteek ederto pasatu zuten.

GIZARTEA

Aretxabaletako Gazte Ekimena taldea sortu zuten gazteek

Berrogei lagun izan ziren Aretxabaletako Gazte Ekimena taldearen aurkezpenean. Ekintzak antolatu, eta jaiak indartzeko asmoa zutela esan zuten. Jai batzordean parte hartzeko gertu azaldu ziren. Herrian gazteendako ekintza gutxi antolatzen dela salatu zuten. /2004-05-10

POLITIKA

Aretxa-koek apartheid egoera salatu zuten

Udal hauteskundeak egin zirenetik urtebete pasa zela eta, Aretxa plataformako kideek kale gerraldia egin zuten, apartheid egoera salatzen. Herriko 600 lagun baino gehiago ahots barik zeudela salatu nahi izan zuten. Borondatea, eta pausuak ematen hastea eskatu zuten. /2004-05-28

Morti
erloju-denda


- Argazkien grabaketak ordenagailuz
- Erlojuen marka hoberenak:
Lotus, Festina, Viceroy, Sandoz, Time-Force.

Zorionak guztioi!



Aretxabaletako
Udala

*Aretxabaletako Udalak herritarroi
gabon zoriontsuak opa
dotzue eta urte berri zoriontsuena*



EKAINA




"Herri aurreratua izateko azpiegituretan dirua inbertitu behar da"

KOLDO AZKOITIA/ DIPUTAZIOKOA
2004-06-14



"Begien bistakoa da autopistak onurak baino kalteak ekarriko dituela"

AITOR AGIRIANO/ IRITZI EMAILEA
2004-06-25



Abstentzia izan zen nagusi Europako hauteskundeetan

Abstentzio handia utzi zuten herrian ere Europako hauteskundeek: %56koa. Botoei dagokienez, EAJk jaso zituen gehien (649), eta ostean Herritarren Zerrenda geratu zen (541). PSE-EE geratu zen hirugarren (392), eta haren ostean PP (150), Aralar (144) eta IU-Ezker Batua (70). Gainontzean hauteskunde eguna lasai joan zen herrian. /2004-06-13

KULTURA

Batukadakoak beste herri batzuk alaitzen hasi ziren

Herrian giro paregabea jarri ondoren, beste herri batzuetara joateko gonbita jaso zuten batukada taldeko kideek. Era horretan, Eskoriatzan izan ziren Zapatista Eguneko ekintzetan parte hartzen, eta Arrasateko San Juanetara joateko deia ere jaso zuten. Loramendiren ekimenez hasi

ziren jotzen, elkarteak ikastaroa antolatu baitzuen. Gazte ugari animatu ziren ikastaroan esku hartzea, eta baita gogoz ikasi ere. Taldeko partaideek esan zuten, euren asmoa ez zen herriz herri joatea, baina gustatu eta inguruko herrietakoak ere deitzen hasi zitzaizkien. /2004-06-25



Lehenengo aldiz herrian jo zuten.

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

11

"Eleberri erraza idatzi nahi izan dut, trenean edo hondartzan irakurtzeko modukoa"

ANDONI URTZELAI/ IDAZLEA
2004-06-25

DOMINA LORTU ZITUZTEN ARATZEKO IGERILARIEK

Donostian egin zen Igeriketa Topaketara joan, eta Aratzeko igerilariak 11 domina lortu zituzten. /2004-06-04

SANTA RITAKO MOJEI AGURRA

↑ Aurten 100 urte Aretxabaletan bete, eta hezkuntza arloa utzi zuten Santa Ritako mojek. /2004-06-17

EKAITZAK HAINBAT KALTE ERAGIN ZITUEN

↓ Ekainaren 8an kaleak urez bete ziren, eta hainbat tokitan ura sartu zen, esate baterako, Eroskin. /2004-06-08


AIPAGARRI



NEKA GALAN
Entrenatzailea



GURUTZE MUXIKA
Margolaria



JOSU VELASCO
Bidaiaria

Neka Galan izendatu zuten preferenteko UDAko entrenatzaile. Era horretan, Igor Gordobil ordezkatzeko konpromisoa hartu zuen arrasatearrak. /2004-06-21

Udaletxeko ganbaran erakusketa jarri zuen. 18 olio-pintura jarri zituen erakusgai, batez ere paisaiak, guztiak azken bi urteotan margotutakoak. /2004-06-04

2003ko maiatzean bizikleta hartu eta bidaiatzen hasi zen. 2004ko ekainean iritsi zen herrira, 12.000 kilometro bizikleta gainean egin ondoren. /2004-06-25

KIROLA

III. Mendi Martxa egin zuten, Murruxiko elkartearen eskutik

Bi urtean behin antolatzen duen mendi ibilaldia egin zuen aurten Murruxikok. 28 kilometroko ibilbidea prestatu zuten, eta jende askok parte hartu zuen. Honako ibilbidea egin zuten: Urkulu, Ugaztei, Degurixa, Alabita, Kurtzebarri, Mendiola eta Aretxabaleta. /2004-06-13

GIZARTEA

Hemeretzi etxebizitza sozial eman zituzten zozketan

Javier Madrazo etorri zen, Tubos lantegi alboan egingo dituzten etxebizitza sozialaren zozketara. 24 izen zeuden zerrendan, eta horietatik 18k eskuratu zuten etxebizitzaren bat. Ezinduendako izendatutakoa, momentuz hutsik uztea erabaki zen, inork eskatu ez zuelako. /2004-06-23



Barruko eta kanpoko lorategiak zaindu eta sortzen ditugu

Ureztatze-sistema automatikoak instalatzen ditugu

Zorionak eta urte berri on guztioi!

Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa: 943 79 78 45 eta 616 96 57 98

IOSU

harategia taberna

Urdaitegia-gozotegia

Kroasantegia

Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



Javik eta Juanek gabon zoriontsuak opa dizkizute!

Hiru helburu:


Bakea eraiki eta demokrazian sakondu

Autodeterminazioa gauzatu

Euskal ezker soberanista berritu

Eskaintza bat:

Elkarlana



**“hator
hator
mutil
etxera...”**

 **aretxabaletako
aralar**

GABONAK EGIN ITZAZU FORUMen, KIROLA OPARI

**WINDSTOPPER
TERNUA
KINBANE**


~~164⁰⁰€~~
114⁸⁰€

SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6, Arrasate
www.forumsport.com

Iragarki honetako prezioek eta sustapenek 2005-01-06 arte balio dute, akats grafiko edo tipografikoengatik edo izakinek akitzeagatik izan ezik

Aretz taberna



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburbesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta
paellak eramateko

ONDO HAS DEZAZUELA URTE BERRIA!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole 5, behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

UZTAILA



"Gurea tabernak, herriko klasikoetariko batek, ateak itxiko ditu"

MARIA AGIRRE/ KAZETARIA
2004-07-26



"Funtzio publiko gehienek gaztelania erabiltzera behartzen gaituzte"

IRATI PAGOAGA/ IRITZI EMAILEA
2004-07-09



Presoen aldeko astea egin zuten

Euskal Presoak Euskal Herri-
ra plataformak antolatuta, presoen aldeko astea egin zuten, uztailaren 12tik 18ra bitartean.

Hasteko murala margotu zuten Durana kalean, *Dispersioari stop* leloarekin. Hurrengo egunetan hitzaldiak izan ziren. Amatasuna kartzelan zelan bizi den kontatu zuten, eta espetxean gaitasunei zelan aurre egin ere hizpide izan zen. Manu Azkarate, Tolosako preso ohia etorri zen.

Uztailaren 17an izan ziren ekintzarik garrantzitsuenak. Mendi ibilaldia egin zuten, eta ondoren bazkaria.

Aretxabaletako plataforma 1999ko apiril inguruan sortu zen, herritarrei presoek bizi duten egoeraren berri emateko, eta gai horren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko. /2004-07-12

HILEKOESALDIA

"PPk ezarri nahi duen pentsatzeko era bakarraren oztopo gu ginen, eta horregatik ahalegin guztia"

FELIX IRIARTE/ KAZETARIA
2004-07-13

HILEKODATUA

45

KIROL IKASTAROETAKO LEHENENGO TXANDAN

Hainbat kirolelan esku hartzeko aukera eman, eta herriko 45 gaztetxok egin zuen izenematea, askok teniserako. /2004-07-02

JABIER ETXEBARRIAK 'FITO'-K SARIA JASO ZUEN

↑ Futbol arduradun onenaren saria eman zion Gipuzkoako Futbol Federazioak. /2004-07-03

BRITAINIAKO BIDAIA BERTAN BEHERA GERATU ZEN

↓ Britainiara joateko asmoa zuten parrokiako lagunek, baina ez zen nahikoa jende animatu. /2004-07-16

AIPAGARRI



IGOR GUENETXEA
4x4ko gidaria

Eskoriatzan egindako 4x4ko trial txapelketa irabazi zuen. Horrelako frogetan teknika oso garrantzitsua dela esan zigun. Arkarazon bizi da. /2004-07-03



IGOTZ URTZELAI
Jaietako kartel egilea

Andramari jaietako eta Eskoriatzako San Pedro jaietako kartel lehiaketak irabazi zituen. San Fermi-
netako kartel lehiaketan ere aurkeztu zen. /2004-07-16



SEBASTIAN URIBETXEB
Marianista

Kolonbian dagoen Risaralda departamenduko San Clemente herrian bizi bada ere, marianista uztailean herrira etorri zen oporrak igarotzera. /2004-07-16

KULTURA

Argia taldearen Pas de Basque ikuskizuna izan zen ikusgai

Uztailaren 3an etorri ziren Argia taldekoak, *Pas de Basque* ikuskizuna eskaintzera. Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen taldeak 2002an aurkeztu zuen lehen aldiz ikuskizuna Miarritzen, eta geroztik euskal dantzen ikuskizuna hainbat hiri eta herritan

erakutsi dute.

Euskal dantza tradizionalak erakutsi zituen Argia taldeak ikuskizun horretan, Urbeltzen esanetan, dantza minimalistak. 40 dantzari baino gehiagok esku hartu zuten, baita hamar bat musikaririk ere. /2004-07-03

HIRIGINTZA

Udalak Bruesa eraikuntza enpresarekin hitzarmena egin

Kirol etxetik Lausittara bitartean etxebizitzak egiteko, hitzarmena sinatu zuten Udalak eta Bruesa enpresak. Hori baino lehenago, osoko bilkura egin, eta udalbatzak onartu egin zuen proposamena. PSE-EEko zinegotzia, berriz, abstenitu egin zen.

Gune horretan mota desberdineko etxebizitzak egingo dira: prezio librean salduko direnak, babes ofizialekoak eta Udalak finkatutako salneurrian salduko direnak. Hasteko, horietan parte hartzeko izenematea zabaldu zuten. /2004-07-16

GIZARTEA


Udaleku irekietan Saharako ume bik parte hartu zuten

Udaleku irekietan parte hartu zuten 200 gaztetxok. Gainera, Saharatik etorritako ume bi ere izan ziren udalekietan: zortzi urteko Mohamed eta Diha. Mohamed, Mario Unanue eta Urri Urizarren etxera etorri zen. Diha, berriz, Nuria Agirre eta Asier Barrainkuaren etxera. /2004-07-09

Aretxabaletako



**Gabon zorientsuak
eta
urte berri on guztioi**



ABUZZTUA



"Andramaixen inguruko balorazio positiboa egiten dugu, ondo pasatu dugu"

XABIER SARASUA/ ZINEGOTZIA

2004-08-18



"Jaiak aurten hobeak izan dira, Gazte Ekimenekoek ekintzengatik"

JULEN BARANDIARAN/ TABERNARIA

2004-08-18

HILEKOESALDIA

"Oindio udako planak ein barik daukenendako, aukera bat jaixen zirkuitue eitie izan leike"

IRATI PAGOAGA/ IRITZI EMAILEA

2004-08-01

HILEKODATUA

66

LEINTZ BAILARAKO 66. ITZULIA EGIN ZUTEN

Ohi bezala, txirrindulari lasterketa egin zen jaietan, eta 66.a izan zen. 1932an hasi ziren lasterketa antolatzen. /2004-08-16



Giro polita sortu zuten herritarrek Andramaixetan

Egun beroak tokatu zitzaizkien Andramaixak ospatu zituztenei, eta jai giroa ere egunetik egunera berotzen joan zen. Egunez egindako ekintzetan jende askok hartu zuen parte, eta gaueko ekitaldi batzuetara ere gogoz hurreratu ziren herritarrak. Egitarau alternatiboa ere izan zen Gazte Ekimenak, Aretxak, Segik, Askatasunak eta Batasunak antolatuta. /2004-08-17

AFRIKAKO DOINUAK HERRIKO JAIETAN

↑ Djambutu Thoissane talde afrikarrak giro bikaina jarri zuen Andramaixetan. /2004-08-16

ZAPARRADA GALANTA HERRI BAZKARIAN

↓ Herritar ugari hurbildu ziren herri bazkaria, eta sekulako zaparrada bota zuen. /2004-08-17

AIPAGARRI



JOSEBA URKIA
Mendizalea



MIKEL SASIAIN
Mendizalea



ALBERTO ASENSIO
Bidaiaaria

Kirgizistango Errepublikara joan zen, Lenín mendia igozteko asmoz. Haize handiagatik, ezin izan zen 7.134 m dituen mendira iritsi. /2004-08-10

Perura joan zen, eta hainbat mendi igo zituen. 6.000 m dituzten Altamaio eta Arteson, besteak beste. Esfinge mendiren horma ere igo zuen /2004-08-18

Abuztuaren 1ean irten zen Alberto Huelvatik, eta abuztuaren 17an iritsi zen Santiagora. Bizikletarekin, Zilarraren bidea egin zuen epe horretan. /2004-08-17

KULTURA

Herriko plazako zine emanaldiak bukatu egin ziren

Abuztuaren lehenengo hamabostaldian bukatu ziren zine emanaldiak herriko plazan. Uztailean hasi ziren emanaldiak, eta jende ugari gerturatu zen plaza-filmak ikustera. Arrakasta handiko filmak eskaini zituzten, *Buscando a Nemo* eta *Euskal Pilota*, besteak beste. /2004-08-12

KIROLA

Preferenteko UDAk berriro ekin zien entrenamenduei

Uztailaren 12an hasi zituzten entrenamenduak UDAko preferente mailako jokalariek. Abuztuaren lehen hamabostaldian oporraldia egin, eta berriro itzuli ziren entrenamenduetara, Neka Galan eta Xabier Zangitu entrenatzaileen aginduetara. /2004-08-22



Argakian, preferente mailako futbol taldea.

HIRIGINTZA

Bruesa enpresak izena emateko bulegoa ireki zuen

Udalak finkatutako salneurrian etxebizitzak saldu behar zituela eta, promozio horretarako izenematea hasi zuen Bruesa enpresak. Horretarako bulegoa ireki zuen Aralar kalean, eta jende asko gerturatu zen informazio eske. 500 lagunek baino gehiagok egin zuten izenematea. /2004-08-25

Urte berri on guztioi!

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79

Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33

Aretxabaleta

IRAILA



"Pena dut, albisteei begira gaztetxoek jasaten duten manipulazioa dela eta"

ARANTXA JAKA/ IRITZI EMAILEA

2004-09-17



"Pixkanaka arazoak konpontzen eta konfiantza hartzen joan behar dugu"

NEKA GALAN/ ENTRENATZAILEA

2004-09-17

HILEKOESALDIA

"Familian pentsatzen hastea tokatu zait. Aita izatea esperientzia polita izan da, ondo gabiltza"

ALBERTO IÑURRATEGI/ MENDIZALEA

2004-09-10

HILEKODATUA

15

BIZIKLETA EROSI ZITUEN UDALAK SPINNINGA EGITEKO

Udaleko Kirol Zerbitzuak eskaintza berria egin zuen: spinning ikastaroa. Eta horretarako 15 bizikleta erosi zituzten. /2004-09-10



X. azoka ekologikoa San Migeletan

Irailak San Migel jaiak ekarri zituen, eta hamargarren aldiz azoka ekologikoa eta artisau feria egin ziren.

Baina ekintza gehiago ere izan ziren jaietan. Loramendik antolatuta, erromeria egin zen zapatuan, Tapia eta Leturiak alaituta. Baina gorabeherarik ere izan zen San Migeletan, herri bazkaria zela eta. Udalaren eta antolatzaileen artean izandako gaizki ulertuak tarteko, Udalak jai egitarautik kanpo utzi zuen bazkari hori. Antolatzaileak haserre agertu ziren, Udalak erabakia azken unean hartu zuela esanez. Zapatuan bazkaria egin zen, eta Udalak dirulaguntza eman zuen bazkari horretarako. Hainbat lagun joan ziren bazkarira. Domekan, berriz, ohiko txirrindulari proba eta abesbatzaren eta dantzarien emanaldiak izan ziren. /2004-09-25

AREANTZAKO ANDRAMARI PARROKIA

Areantzako Andramari Parrokiaren gaineko esku-orria argitaratu zen, Aitor Antxiak batutako datuekin. /2004-09-10

BEINKE LORAMENDI DANTZA EGIN EZ


San Migeletan egin ohi zen Beine Loramendi dantza ez egitea erabaki zen, jende faltagatik. /2004-09-25

AIPAGARRI




JULEN COBOS
Musikaria

Diaspor han izeneko diskoa kaleratu zuen aretxabaletarrak, Bat Gehio taldeko kantaria baita. Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak kaleratu die diskoa. /2004-09-25



BIXEN GALZON
Irakaslea

Goiena Sport enpresa eratu, eta kirol etxeko kirol ihardueren ardura hartu zuen. Udalak lehiketa deitu, eta berrari adjudikatu zion zerbitzua. /2004-09-18



ANGEL BARANDIARAN
Abesbatzako

Aretxabaletako betiko kantuen inguruko emanaldia eskaini zuten abesbatzak eta musika eskolak, San Migeletan. Barandiaranek zuzendu zuen saioa. /2004-09-26

HEZKUNTZA

Basabeazpi gunea inauguratu zuen Arizmendi Ikastolak

Ikasturtea irail hasieran hasi bazuten ere, handik egun batzuetara inauguratu zuten ofizialki Basabeazpi gunea. Angeles Iztueta, Hezkuntza Sailburua etorri zen zentro berria inauguratzera, Arrixu Oliben alkatea, eta Arizmendiko arduradunak lagun zituela. Baina ekitaldi ofizialean

ez geratzeko, hurrengo egunean, zapatuz, herritarrendako festa antolatu zuten. Goizez ekintzak, eta ondoren bazkaria egin zuten. Baliabide berriak estreinatu zituen Basabeazpi, psikomotrizitate gela, besteak beste. Gune berrian, 2 eta 6 urte arteko umeek ikasiko dute. /2004-09-17



Angeles Iztueta sailburua etorri zen.

GIZARTEA


Alberto Etxebarria hil egin zen Frantzian, 41 urte zituela

Alberto Etxebarria, herriko hainbat elkartetako kide zen aretxabaletarra, hil egin zen Frantzian, Fagorrerako lanera joana zela. Bihotzekoak eman, eta hil egin zen. San Migelak hastear iritsi zen albistea, eta jaiak ilundu egin ziren. Dolu-xingolak jarri ziren hainbat tokitan. /2004-09-24

KULTURA

Bazkideei txartel berria egiten hasi ziren liburutegian

Internetek eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatuz, liburutegiko liburuen katalogoa sare bidez kontsultatzeke aukera eman hasi zen liburutegia. Horretarako, bazkide guztiei txartela berritu egin zitzaion. Orain, liburuaruak maileguan ere har daitezke Internet erabiliz. /2004-09-20



Olentzero,
Gabon zahar gaua,
Bizar Zuri,
urte berria,
erregeak...
guk ere egun seinatu
hauek zuekin ospatu
nahi ditugu.



Aretxabaletako
Eusko Alkartasuna

URRIA



"Gure kultura honek ihes egiten dio heriotzaren galdera mingotsari"

JON MOLINA/ IRITZI EMAILEA

2004-10-29



"Barre eginez askoz hobeto biziko gara. Horrela gorputza mugitzen dugu"

LEIRE JAUREGI/ IRAKASLEA

2004-10-29

HILEKOESALDIA

"Aralarko kideok ez genuen garbi Urkulun kaminoa asfaltatzearena, baina horren alde egin dugu"

2004-10-08

HILEKODATUA

500

HARRERA ONA SU TA GAR TALDEAREN KONTZERTUAK

500 lagun inguru izan ziren Su Ta Gar eta Ozen taldeen kontzertuan. Kurtzebarri Institutuak antolatu zuen. /2004-10-23



Coprecik Txinako lantegia inauguratu zuen Zhuhai eskualdean

Txinako kutsuaz inauguratuko zuen Coprecik Txinako lantegi berria. Zhuhai hirian dago lantegia, eta inaugurazioan izan ziren, besteak beste, hiriko alkatea, Espainiako enbaxadorea Txinan, eta Javier Oleaga Copreciko gerente nagusia. Lantegia Txinan zabalduz, Asiako merkatuan etxetsna elektrikoaren osagaietarako hornitzaile nagusi izan nahi du Coprecik. /2004-10-22

BIKAIN AKORDEOILARIAK MEXIKON

↑ Mexikora joan ziren Akordeoi Orkestrako kideak, eta kontzertuak arrakastatsuak izan ziren. /2004-10-29

ERDIALDEKO AUTOBUS GELTOKIA ATERPERIK GABE

↓ Urrian aterpe eta ordutegirik gabe jarraitzen zuen erdialdeko autobus geltokiak. /2004-10-22

AIPAGARRI



ANDONI ARENAZA
Gidaria



MARKEL URIARTE
Trialsina



JESUS MARI ERRASTI
Paxarari egilea

Gernikan egindako 4x4ko lasterketa batean, lehenengo sailkatu zen. Herrian 4x4ko proba bat egingea gustatuko litzaikeela esan zigun Andonik. /2004-10-01

Lehenengo sailkatu zen Oartzunen jokatutako Euskadiko Trialsin Txapelketan. Infantil mailan lortu zuen garaipen garrantzitsua, 13 urterekin. /2004-10-22

Herrian egindako patxarari lehiaketan, lehenengo saria jaso zuen. *Kaxpaxio* izena jarri zion patxarari, eta askorik pentsatu gabe aurkeztu zen. /2004-10-24

HEZKUNTZA

Kurtzebarri BHI inauguratu zuten herriko plazan

Kurtzebarri, Bigarren Hezkuntzako Institutua inauguratu zuten urriaren 23an. *Bagoaz aurrera* leloarekin, hainbat ekitaldi egin zituzten, nagusienak 23an, zapatuz. Resu Abasolo zuzendariak esan zigunez, eraikin berriarekin sendotu egin dira. Institutuan 145 ikasle ari dira ikasten, Are-

txabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagakoak. Resu Abasolok Udalaren jarrera goraipatu zuen, eraikina utzi baitzien herriko plazan institutu berria egiteko. "Jendeak miretsi egiten du gazteei zuzendutako eskola herriko plazan egotea", azpimarratu zuen zuzendaria. /2004-10-22



Urriaren 23an inauguratu zuten.

ERREPIDEAK

Aretxabaletako Autopista Taldea eratu zuten

Bidegi enpresa autobidearen erakuntza proiektua egiten hasi zela eta, auzoetako ordezkariekin harremanetan jarri zen. Horrela, hainbat lagunek Aretxabale-tako Autopista Taldea eratu zuten. Guztiek kezka partikularrak zituzten. Bi aldeak bilerak egiten hasi ziren. /2004-10-22

HIRIGINTZA

Urkulu berritzeko proiektua aurkeztu zuen Udalak

Urkulu berritzeko proiektuaren berri eman zuen Udalak: Goroetatik aurrera dagoen bide zatia konpondu, 166 autorentako aparkalekuak zehaztu eta jarleku erosoak ipini. Gipuzkoako Diputazioaren laguntza zuela jakinarazi, eta proiektua onartu zuten. /2004-10-08

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari auzunea 3
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 29 26



ANDRA
MARI

Aholkularitza

Jai
zorientsuak
eta urte
berri on!

Mobiliario ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07





■ Altzariak

■ Diseinua

■ Apainketa



Urte berri on guztioi!



Fino

Gizonezkoen
ile apaindegia

Espezialitatea: ile tratamenduak

Zorionak eta urte
berri on guztioi!

Durana 19 • Aretxabaleta • Tel.: 666 264 886


AZAROA



"Txinatarrek seriotasunez egiten dute lan, eta guztia birritan gainbegiratur"

OIER ETXEBARRIA/ INGENIARIA

2004-11-12



"Borondatea egonez gero, dagozkigun zinegotziak gure esku egon daitezke"

JOSU ATXAGA/ ARETXAKO KIDEA

2004-11-12



Alberto Etxebarria zenari omenaldi hunkigarria egin zioten

Azaroaren 27an omenaldia egin zioten Alberto Etxebarria, irailean hil zen aretxabaletarrari. Goizean lagunek aurrekua dantzatu zuten, eta Albertoren errautsak zabaldu zituzten Kurtzebarrin. Madrildik etorritako lagunek, berriz, *Bidaiari bati* idatzita duen plaka agerrarazi zuten. Arratsaldean, bazkaria egin zuten eta Arrasate Musikalek kalejira egin zuten. /2004-11-27

HILEKOESALDIA

"Hezetasuna dela eta, Galartzatik beste norabait eraman behar dugu artxibo historikoa"

MARIJO URTEAGA/ TEKNIKARIA

2004-11-26

HILEKODATUA

325

ARGAZKIREKIN MUNTAIA EGIN ZUTEN

Alberto Etxebarriaren 325 argazki erabiliz, muntaia egin zuten argazki taldekoek. Eskerrak emateko era bat izan zen. /2004-11-27

LORAMENDIK 'BERBETA BERUA' ABIAN JARRI

↑ Gaztetxoei hainbat esamolde euskaraz zelan esan irakasten hasi zen Loramendi elkarteak. /2004-10-05

JENDEAK KALEKO ANIMALIEI JANA BOTA

↓ Katuei eta usoei jana botatzeko ohitura gero eta handiagoa da, eta ondorioz asko ugaritu dira herrian. /2004-11-26

AIPAGARRI



ALBERTO PEREZ
Korrikalaria



FRAN MIGUEL
Korrikalaria



LEIRE BLAZQUEZ
Kutxa saria jaso zuen

Behobia-Donostia lasterketan aretxabaletarrik azkarrena izan zen. 1:11.54 behar izan zituen 21 kilometro korritzeko. Pozik bukatu zuen. /2004-11-14

Donostiako maratoia egin zuen, bere bizitzako lehenengo maratoia. Ondo eta denboraz entrenatu zenez, maratoia gustura bukatu zuen. /2004-11-28

MUn ikasi du Leirek, eta Kutxak 1.300 euroko saria eman zion nota onak ateratzeagatik. Mondragon Unibertsitateko 10 ikaslek jaso zuten saria. /2004-11-26

EKONOMIA

Eguzkigraf inprimategiak 25 urte bete zituen hil hasieran

Arrasateko bi inprimategi, eta Aretxabaletako inprimategi txiki bat elkartu ondoren jaio zen Eguzkigraf, duela 25 urte.

Hasierako urteetan Arrasaten izan zuten egoitza, baina laster herrira etorri ziren. Urte horietan guztietan asko aldatu da lan egiteko modua Eguzkigrafen.

MCCn sartzeko eskaria ere egin, baina ez zieten onartu Aurrera begira, lau koloretan inprimatzen duen makina erosi nahi dute, baina horretarako inbertsio handia egin behar dute. Langileek, Nafarroara egindako bidaia batekin ospatu zuten urtemuga seinalatua. /2004-11-12

EUSKARA

Udalak eta Badiharduguk hitzarmena sinatu zuten

Pertsona nagusien ahotik herriko hizkera jasotzea garrantzitsua dela eta, Aretxabaletako Udalak lankidetzat hitzarmena sinatu zuen Badihardugu elkartearekin.

Era horretan, Badiharduguk hainbat elkarrizketa egingo dizkie herriko pertsona nagusi

batzuei, herriko hizkeraren inguruko xehetasunak jasotzeko. Ikerketa lanak urte pare bat iraungo ditu. Egindako lana ezagutzera ematea eta ondo gordetzea ere izango ditu helburu hitzarmenak. Bestalde, udaberri aurretik prest egongo da Interneten ibarreko fonoteka. /2004-11-30

HIRIGINTZA

Urkulu berritzeko proiektua Diputazioaren esku

Urkulu berritzeko lanak Udalak esleituko zituela uste arren, azaroan Diputazioaren esku utzi zen ardura hori. Oliden alkateak adierazi zuenez, obrak Diputazioak egin arren, proiektuan ez zen aldaketarik aurreikusten. Hau da, zein lan egin Udalak zehaztu duela. /2004-10-12

Bereziki: Harategia Urdaitegia Fruitategia

Ondo pasa gabonak!

IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea 8. ARETXABALETA. 943 79 05 83

ABENDUA



"Uste dot inportantie dala eskaparatie apainketie, baiñe herrixe be bai"

ENEIDA EGURZA/ DENDARIA
2004-12-03



"Borboitarren bisitak bereziki harrotu ditu hautsak oraingo honetan"

ANJEL BERGARETXE/ IRITZI EMAILEA
2004-12-17



Etxebizitza sozialen zozketa egin

Kirol etxetik Lausittara bitartean egingo diren etxebizitza sozialean zozketa egin zen hilaren 22an. Zehazki, 185 etxebizitza sozialen zozketa egin zen, eta Udalak finkatutako salneurrian salduko dira etxebizitza horiek guztiak. Notarioa etorri zen zozketa egiteko. 293 laguneren izenak kutxa batean sartu, eta guztiak atera zituen. Atera ahal, zerrenda osatuz joan zen notarioa. Era horretako 185 etxebizitza emango badira ere, izen guztiak atera ziren, aurrerago ordezkoen beharra egon daiteke eta. Zerrenda osatuta, aukeratutakoak etxebizitza aukeratzen joango dira. Zerrendan lehenengo daudenek aukera handiagoa izango dute nahi duten etxebizitza aukeratzeko. Bruesa eraikuntza enpresak egingo ditu etxe horiek. /2004-12-22

HILEKOESALDIA

"Felixen heriotza, nire ustez, euskal alpinismoak izan duen kolpe moralik handiena izan da"

ANTXON ITURRIZA/ KAZETARIA

HILEKODATUA

121

ETXEBIZITZA EGITEKO AUKERA CVL LANTEGIAN

Diputazioak onartu egin zuen Cerrajera Valle Leniz lantegia lekuz aldatu, eta toki horretan 121 etxe egiteko aukera. /2004-12-03

URKULURAKO ASMOAK BERTAN BEHERA

↑ Urkulun Eko Hiria egiteko asmoa Jauralaritzak bertan behera utzi duela jakin genuen. /2004-12-03

URKULU BERRITZEKO LANAK HASI EZ

↓ Urkuluko lanak urtea bukatzerako egingo zituztela esan arren, abenduan lanak hastear ziren. /2004-12-17

AIPAGARRI



AITOR ALCAIDE
Xake jokalaria

Oñatin jokaturako xake txapelketan bigarren sailkatu zen Aitor Alcaide. Guztira 32 lagunek parte hartu zuten, eta herritik sei joan ziren. /2004-12-12



RESU ABASOLO
Elbiraren biografoa

Durangoko azokan aurkeztu zuen Elbira Zipitria irakaslearen inguruan egindako biografia. Beste irakasle batekin batera egin zuen lan hori. /2004-12-03



MAIDER ETXANIZ
Gazte teknikaria

Gazte teknikari lanak egingo ditu. Elgoibartarra da, 30 urte ditu eta soziologia ikasi zuen. Diputazioan gazteen inguruko gaiak landu izan ditu. /2004-12-17

KULTURA

Margolanak erakusgai eta salgai jarri hamar emakumek

Herriko hamar emakumek erakusketa jarri zuten udaletxeako ganbaran, 13tik 17ra. Pintura ikastaroan egindako margolanak jarri zituzten ikusgai eta salgai. Izan ere, margolan batzuk originalak ziren eta horiek saltzen jarri zituzten. Teknika handiz egindako margolanak ikusteko

aukera izan zen, Marije Carrillo irakaslearekin asko ikasi dutenaren seinale. Gainera, erakusketa jarri orduko hainbat margolan salduta zeuden, bereziki inguruko paisaia eta base-riekin lotutakoak. Bodegoiak ere nagusi izan ziren erakusketan. /2004-12-13



Margolanak salgai ere izan ziren.

KIROLA

Spinninga egiteko 18 bizikleta kirol etxean urtea bukatu orduko

Aurten arrakasta handia izan du spinningak kirol etxean. Iraile-rako hainbat bizikleta erosi zituzten, eta ondorioz jende askok egin zuen kirol horretan parte hartzeko izenematea. Baina eskaria handia zela eta, abendurako beste lau bizikleta erosi behar izan zituzten. /2004-12-17

GIZARTEA

Gabonetako argietan 1.826 euroko gastua aurreikusi Udalak


Herria Gabon giroarekin apaintzeko, urtero moduan argiak jarri zituzten kalean, batez ere hainbat arbolatan. Udalak 1.826 euroko gastua aurreikusi zuen Egu-berritako argietarako.

Euskalteleko lanak tarteko, aurten ez zen argiztatu herriaren erdialdea. /2004-12-17


MARIA JESUS
ARGAZKILARIA
 Herriko Plaza 10 (Aretxabaleta)
 943-771255 656-732463
www.mjargazki.com

**EZTEIAK, JAUNARTZEAK, MODAZKO "BOOK"-AK,
ESTUDIOKO ARGAZKIAK, ERREBELATUAK, MARKOAK...
DENA ARGAZKI PROFESIONALEAN
JAI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON!**

ERRETRATUZAHARRA



Duela 37 urte azkenengo aldiz pasa zen trena

Ez dira horrenbeste urte bailaratik trena pasatzen zela. 1967ko abenduaren 31n pasa zen trena azken aldiz, duela 37 urte, nahiz eta argazkiari begiratu ta urte gehiago igaro direla pentsa daitekeen.

Honako argazkia Marin auzoan aterata dago, Eskoriatzan. Inguruan

honako baserriak ageri dira: Emalditxiki, Emaldiaundi eta Ugarte. Beste toki askotan bezala, trenaren joan-etorriak eguneko orduak markatzen zizkien inguruan bizi ziren baserritarrei. Jakina, baserritarrek Gasteizera joateko edo lanerako erabiltzen zuten trena. Arbolak mozten zituztenean, esaterako, enborrak trenbide ondora

eraman, eta trenak toki horretan geratzeko abisua izaten zuen. Gasteiztik erosketekin etortzen zirenean, berriz, Marinen erosketak botatzen zituzten, tren geltokia Eskoriatzan zegoen eta.

Informazioa: Pilar Beitia
Argazkia: Dorleta Beitia

NURR gortinak


Loramendi 8
Tel.: 943 53 26 53
ARETXABALETA

Gabon zoriontsuak igaro!

- Gortinak eta estoreak
- Edredoiak
- Funda nordikoak
- Izarak
- Toallak



Jou Diaz



Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Zorionak eta
urte berri on!

2005 urte gozo-gozoa opa dizuegu!



©kindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

©kindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

©kindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

©kindegia - Gozotegia
Aretxabaleta


©kindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

©kindegia - Gozotegia
Aretxabaleta

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2004



ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ELEKTROGAILUAK

Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



expert

FAGOR

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA • LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2004ko abenduaren 23a / 193. zenbakia

2004 urteari begiratu

ESKORIATZA eta LEINTZ GATZAGA

bõa navidade

merry christmas

joyeux Noël

zori•nak

bon natal

frohes weihnachtsfest


feliz navidad

FAGOR



Fagor Ederlan


KALEINKESTA/ Nola baloratuko zenuke 2004. urtea? Eta zer eskatzen diozu 2005. urteari?



IGOR EZPELETA
Langilea




MARIATXEN ARANZABAL
Langilea



ESTEBAN ARRIETA
Erretiratua



CANDIDA GARCIA
Langilea



FLORENTZIO OIANGUREN
Erretiratua



NEREA ZUBIETA
Langilea

Edinburgon bi urte egin ditut; hango lagunekin izandako harremana primerakoa izan da. Herrira itzuli eta apur bat galduta sentitu naiz. Nire tokia bilatzea eskatzen diot urte berriari.

Gauza on eta txarretatik ikasi behar dugula uste dut. Urte berriari indibidualistak ez izatea, toleranteagoak izatea eta eragileek Euskal Herriko egoera hobetzen saiatzea gurako nuke.

Nahiko ona izan da urte hau niretzako; nahigaberi ez dut izan, eta 80 urte bete ditut. Etxean ere dena ondo. Osasun ona niretzat eta familiakoentzat eskatuko nioke urte berriari.

Oso txarra izan da niretzako urte hau; familiako bikide hil dira eta. Orain, oso triste nago. Urte berriari zorigaitz gehiago ez izatea, lana edukitzea eta bakea eskatuko nizkioke.

Urte asko ditut, eta horregatik, urtea azkarregi igaroz zaidala uste dut. Datoren urtean orain arte bezala jarraitzea eta 2005erako herriko lan gehienak amaitzean gurako nuke.

Urte ona izan da. Familia ondo ibili da eta lana ere izan dut. Urte berriari bakea lortzeko elkarrizketa bideratu, euskaraz bizitzeko aukerak zabaldu eta langileen eskubideak bermatzea.

ETABARRUAN...

ZURIETABELTZ

URTEARI GAINBEGIRATUA

- Urtarrila** /3
- Otsaila** /4
- Martxoa** /5
- Apirila** /6
- Maiatza** /7
- Ekaina** /8
- Uztaila** /10
- Abuztua** /11
- Iraila** /12
- Urria** /13
- Azaroa** /14
- Abendua** /15



JUAN CARLOS BENGOA/ Eskoriatzako alkatea

*Eskoriatza
2004. urteari
gainbegiratua*

2004. urteko balantzea egiterakoan, kontuan hartu behar dugu gure lantaldeak erabakitako aurrekontuekin igarotako lehenengo urtea osoa dela. Horrek, hurrengo urteetan aurrera eramango diren ekimen asko martxan jartzea ekarri du: Izartu programa, trafiko eta aparkalekuen ikerketa, hiri berritze eta gazteria plana, etab. Baina aurten ere egiten ari dira aurretik hasitako egitasmoak. Horren adibiderik onena, bukatu berri dugun Ibarraundi-ko eraberritze lanak, Santa Marina inguruan etxebizitzaren partzela banaketaren erabateko onespina, etab.

Aipamen berezia egin behar diogu Jaurlaritzak Izartu programaren bitartez hurrengo lau urteetarako onartu digun 1.274.000 eurotako dirulaguntzari. Jaurlaritzak Eskoriatzari eman dion diru-laguntza honekin, Dorleta auzoa eta

Aranburuzabala kaleko urbanizazio berriak egingo ditugu, Olazar auzotik gorako trenbide zaharraren plataforma errekonstruatu dugu, saihesbidean pantaila akustikoak jarriko ditugu eta beste bost

“Proiektu berriak jarri ditugu abian; aurretik martxan zeuden batzuk ere amaitu ditugu, Ibarraundi eraberritzea, kasu”

zonaldeetan lur-azpiko edukiontzia jarriko ditugu. Asmohoriek Udalari 2.548.000 euro inbertitzea suposatuko dio. Kopuru hauei, aurten ere atzeratu zaigun Santa Ana auzoko urbanizazio proiektuaren 1.000.000 euroko inbertsioa gehitzen badiogu, konturatuko gara hurrengo urteetan izugarriko ahalegina egin behar duela Eskoriatzako Udalak.

Hainbat urtetan hizpide izan den autopista proiektua gauzatzeko hasi den urtea da 2004a. Hor ere ahalegin berezia egin behar izan dugu Udalak eta herritarrok gure herrian eragin handia izango duen ekimenari hobekuntzak proposatzeko.



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL/ Kazetaria

*Gatzaga
2004. urteari
gainbegiratua*

Osailean hasi nintzen ZEBARRIn lan egiten, eta ordura arte ezezagun zitzaidan herria poliki-poliki ezagutzen joan naiz.

Turismoari lotutako herria da Gatzaga. Horren erakusgarri da Gatz Museoa. Herriaren historia jasotzeaz gain, jendea erakartzeko aukera paregabea dela ezin ukatu. Izan ere, bisitari askori eman die Aitziberrek urre zuritari buruzko azalpena. Bestalde, bisitari horietariko asko jasotzeko bi landetxe ditu Gatzagak. Azkena, apirilean, ireki zuten.

Ezin ahaztu herritarrek elkartu eta giro lasaian egoteko aukera ematen duen tokia: Labidea. Martxoan urtebete bete zuten plazako denda txikiak eta herriko Turismo Bulegoak. Amaia eta Aitziberrek lan polita egiten dute.

Kultura eskaintzei so eginez gero, berriz, Gatzagako

Udalak eskalada bultzatu gura duela esan daiteke. Azken hilabeteotan antolatutako hitzaldietan, Eneko Pou arabarra eta Josune Bereziartu gipuzkoarrak egin dute berba. Inguruko herrietatik ere jende mordo etorri da bi eskalataleen bizipen berri izateko.

GURELek ere, lan polita egiten duela iruditzen zait. Herriko txikiak ez dute aspertzeko aukerarik izaten; eskiatzera joan ziren, Iruñeko

Planetariumera edota Karrantza aldera, esaterako.

Azkenik, herriko emakume taldea. *Sorginek* ere primeran igarotzen dute elkarrekin. Nire begiekin ikusi nuen, herriko andreakin afaltzeko aukera izan bainuen maiatzaren 18an. Hala ere, azkenaldian arduratuta aurkitu ditut *sorginak*. Gasteak ez omen dira taldean sartzerantz animatzen, eta urte berriak aire berriak ekartzea espero dute. Zorte on guztioi!

“Azkenaldian sorginak arduratuta aurkitu ditut; gasteak ez omen dira taldean sartzerantz animatzen”

Ze barri?

2004
Urteari
gainbegiratua
ESKORIATZA eta LEINTZ GATZAGA

Ze barri?

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Zuriñe Velez de Mendizabal

ERREDAKZIOA
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala




Leintz Gatzagako Udala

URTARRILA



"Ordu bateko bisita gidatua egin dugu herritarrekin eta pozik ikusten zen jendea"

AITZIBER GOROSABEL / GATZ MUSEOA
2004-01-23



"Zaila izan arren, ordu txikietan ezingo da patinatu Gatzagan"

JON SASIAIN / ZINEGOTZIA
2004-01-30

HILEKOESALDIA

"Guztion ondarea da Gatz Museoa eta guztion artean ondare hori aberastea dugu helburu nagusi"


AITZIBER GOROSABEL / GATZ MUSEOA
2004-01-23

HILEKODATUA

161

UMEK ASTINDU ZITUZTEN DANBORRAK

Urtarrilaren 20an, Luis Ezeizako 161 ume elkartu ziren danborrada jotzeko. Guraso mordoa gerturatu zen ekimena ikustera. /2004-01-23



Skate parkea jarri zuten berriro Gatzagan

Skate parkea jarri zuten urtarrilean berriro Gatzagan. Uda aurretik jarri zuten lehenengoz. Hala ere, Andramaixa jaiak zirela-eta kendu egin zuten U itxurako plataforma. Urtarrilean, berriro jarri zuten patinatzeko plataforma herrian. Bada, zeresan ugari sortu zuten jende ugari erakarzen duen tramankuluak, asko, sortzen duen zarategatik. /2004-01-30

EGUZKI-PLAKA GEHIAGO KIROLDEGIAN

↑ Energia garbi eta berritzailearen aldeko apustua egin gura izan zuen Eskoriatzako Udalak. /2004-01-16

ZARATA HANDIA 'U' ITXURAKO PLATAFORMAK

↓ Gatzagako hainbat bizilagun kexatu egin ziren patinatzeko plataformak ateratzen zuten zarategatik. /2004-01-30

AIPAGARRI



JULIAN GOROSPE
Txirrindulari ohia

Txirrindulari ohiak Kirol Elkartearen 40.urteurreneko egitarauaren barruan *Eliteko kirolari baten bizitza eta bizipenak gaur* hitzaldia eskaini zuen. /2004-01-30



IBAI AGIRREURRETA
Ikaslea

Ibaik XV. Loramendi Literatura Lehiaketan hartu zuen parte. Komiki sailean aritu zen eta hirugarren saria irabazi zuen gatzagar gazteak. /2004-01-30



GARAZI OROBENKOA
Ikaslea

Elkarrizketa grabatu sailean lan onenaren saria irabazi zuen XV. Loramendi Literatura Lehiaketan. Patxi Lasagabasterri egin zion elkarrizketa. /2004-01-30

ERAIKUNTZA

Zubiate labea gela baten sartzeko konpromisoa

Gaztañadui etxebizitza-sustatzailerak konpromisoa hartu zuten Zubiate labea lokal baten sartzeko. Udalarena da labea, eta eraikuntza enpresarekin hitzarmena sinatuta lortu da akordioa. Labea eta inguruak zaharberritu behar dituzte. 40 etxebizitza egingo

dituzte labearen inguruan. Behin eraberritze lanak amaituta, zapi metroko altuera duen labea, etxebizitzaren behealdean eta garajearen lehen solairuan sartuko zutela erabaki zuten. Lana egiteko 120.000 euro inbertitzea aurreikusitako zuten. /2004-01-16

ERAIKUNTZA

Torrebaso industrialdeko hotela egiten hasi ziren

Torrebasoko industrialdean, enpresa askok dute egoitza. Horretaz gain, hotela egiten hasi ziren urtarrilean. Lanak ondo joanez gero, datorren urteko udan irekiko dutela adierazi zuten.


Hotelaren proiektua aurkeztu zuten urteko lehenengo hila-

betean: 98 gela, hotel moderno eta eroso, puntako teknologia zerbitzuak eskaintzen dituen. Industrialdean gutxi gorabehera 50 enpresa irekiko dira, eta bertako bezeroak jasotzea gura dutela adierazi zuten hoteleko arduradunek. /2004-01-23

ZERBITZUA

Sei ordenagailu zituen KZGunea ireki zuten Garro Jauregian

Urte hasieran ireki zuten Gatzagako KZGunea berria. 22 lagunek eman zuten izena ikastaroetan parte hartzeko. Urtarrilaren 7an hasi zen lehenengo aldea Interneten gaineko eskolak hartzen. Ibai Idiakez hasi zen irakasle lanetan Garro Jauregiko azken solairuan. /2004-01-16



Urte berri on zorionsua izan dezazuela!



ILE APAINDEGIA · LUZATZEAK · MAKILLAJEA · LOOK ALDAKETAK
Aranburuzabala 30 ESKORIATZA 943 71 30 31

OTSAILA



"Enpresetako euskararen egoera hobetzeko, gogor lan egiten jarraitu behar da"

NAHIA INTXAUSTI/ IKASLEA

2004-02-06



"Biblioteka berriko erabiltzaile kopuruak gora egin du urtebetean"

IÑAKI AGIRIANO/ BIBLIOTEKARIA

2004-02-27

HILEKOESALDIA

"Gauzak ondo joanez gero, herrian lur azpiko hamar edukiontzi gehiago egitea gurako genuke"

JUAN CARLOS BENGEOA/ ALKATEA


2004-02-13

HILEKODATUA

510

**URTE GATZAGA
GIPUZKOAN SARTU ZELA**

Oñatiko jauntxoaren agintaldi maltzuraren mende bizi ondoren, askatasuna lortu zuen 1494ko otsailaren 13an herriak. /2004-02-13



Giro polita egon zen Gatzagan Inauteri-zapatuan

Herritar gehienek beraien mozorroa jantzi eta kalera irten ziren, hotzari aurre egin eta Inauteri-zapatua ospatzera. Txikienek estreinatu zuten eguna. Izan ere, haurrentzako jokoak antolatu zituzten pilotalekuan. Ondoren, helduen txanda iritsi zen, txikiteoa egin zuten afalordura arte. Bukatzeko, Ostatur afaldu zuten; Aretxabaletako Basabek giro alaitu zuen musikarekin. /2004-02-27

OINETAKO KANPAINA ARIZMENDI IKASTOLAN

↑ Argentinara bidaltzeko zapatak batzea erabaki zuten, bizi baldintzak hobetu eta jendea sensibilizatzeko. /2004-02-13

GIZONEZKORIK EZ AMUSKAREN IKASTAROETAN

↓ Nahiz eta Amuskaren ikastaroetarako deia gizonezkoiei ere egin, ez zen bat ere animatu. /2004-02-06

AIPAGARRI



MAIDER OTAMENDI
Zinegotzia



ISABEL GURIDI
Museo Eskola



FERNANDO RASO
Entrenatzailea

Gorka Arreserekin batera kintoei dantzak irakasten dihardu, eta aurten 19 mutil gazte izan dituzte ikasle. Aurtengo lana polita izan dela eman du aditzera. /2004-02-06

Isabel Santa Ageda mutilekin izan zen, eta egun berezi horretako ohiturari buruz egin zien berba. Hala, gehiago ikasteko aukera eskaini zien Guridik. /2004-02-06

Emakumeen saskibalo taldea gidatzen du Fernandok eta otsailean jokaturako derbian, 71 eta 44 irabazi zion bere taldeak Aloña Mendi taldeari. /2004-02-16

HIRIGINTZA

Gorosarri plazan osasun etxe berriko lanak hasi zituzten

Santa Ana kaletik Gorosarri plazara igarotzeko osasun berriko lanak hasi zituzten. Lanok egiteko, 347.555 euroko aurrekontua zegoen, eta sei hilabete iraungo zutela aurreikusi zuten. Eraikinak 408,27 metro koadro izango ditu, 347,48 erabilgarriak. Egoitza zahar

rrak ez zituen zerbitzu eskaintza handitzea gura zutela adierazi zuten Juan Carlos Bengoa alkateak: pediatria, erizaindegia, larrialdi gela... Lanak amaituta eskoriatzarrek behar dituzten zaintza eta beharrak herrian asetzea espero dute. /2004-02-20

GATZAGARA BISITALDIA

Lopez de Gereñu foru diputatua Gatzagan izan zen

Landa Ingurunearen Garapenerako foru diputatu Nuria Lopez de Gereñu egon zen Gatzagan urtarilaren 30ean. Mendi Nekazaritzako Mari Karmen Iturberekin batera egon zen diputatua. Herriaren gainekoak jakin eta hurbiletik ezagutu gura izan zituen Lopez

de Gereñuk. Hainbat toki bisitatu zituzten biek, besteak beste, udaletxea, Jakion, Gaztainuzketa eta Gatz Museoa. Lopez de Gereñuk Foru Aldundian kargua hartu zuenetik Gatzagara egindako lehenengo bisita izan zen urtarrilekoa. /2004-02-06

ZINEA GATZAGAN

Herriko ume eta gazteei zuzendutako filmak ikusgai

Otsailak 1ean Gatz Museoa zine emanaldia egin zuten herriko ume eta gazteentzako. Gatzagako Guraso Elkarteak (GUREL) jarri zuen ekimena abian. Lehenengo egunean ume eta gazte ugari hurbildu ziren filma ikustera. Otsaileko domeka guztietan eman zituzten filmak. /2004-02-06



San Migel jatetxea

Apotzaga auzoa Eskoriatza 943 71 48 71

**GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**

MARTXOA



"Bide interesgarriak eskaintzen ditu Informazio eta Komunikazioak"

ION SARASUA/ HUHEZI
2004-03-26



"Bizkaiko herri txikietatik ere etortzen dira bisitariak; gutxien, Arabatik"

A. GOROSABEL/TURISMO BULEGOA
2004-03-26

HILEKOESALDIA

"Gatzagari buruzko informazio liburuxkak egitea interesgarri eta beharrezkoa dela deritzogu"

AMAIA OLABE/ LABIDEA
2004-03-26

HILEKODATUA

30

'SORGIN' EGON ZIREN GURE AMETSA JATETXEAN

Urtero egiten duten bezala, martxoan Gatzagako emakumeek bazkaria egin zuten. Ondoren, dantzaldia izan zuten. /2004-03-12



Hogeita zazpi gatzagar eskiatzen

Gatzagako Guraso Elkarteak antolatuta, martxoko bigarren asteburuan eskiatzera joan ziren. Aurten egin dute lehenengo aldiz neguan irteera bat, eta oso ondo ibili ziren animatu zirenek. Nafarroan izan ziren herriko hogeita zazpi lagun. Bertan, eskiatzeko aprobeztatu zuten asteburua. Urzainkin - Izaba eta Erronkari artean - hartu zuten ostatu bidaiara animatu zirenek, eta Arette aldera joan ziren eskiatzera.

Hala ere, guztiek ez zuten toki berdinean eskiatu, eta batzuk Belagua aldera joan ziren. Bertan, iraupen eskia egiteko aukera izan zuten bertaratuak. Gatzagar guztiek probatu zuten eskiatzea zer den, eta bai gazte eta baita helduek ere oso ondo pasatu zuten asteburua. Errepi-katuko al dute aurtengo neguan ere? /2004-03-18

EZEIZA IKASTETXEKOAK EUSKARA PRAKTIKATZEN

↑ Laugarren eta seigarren mailetako 17 gazte joan ziren Segura eta Aubixara euskara praktikatzera. /2004-03-26

ELURRAK ARAZOAK SORTU ZITUEN

↓ Eskoriatzatik Gatzagarako bidean zailtasunak izan ziren elurraren eraginez; bai eta elizateetan ere. /2004-03-05

AIPAGARRI



VIRGINIA IMAZ
Oihulari Klown

Emakumeen Eguna ospatzeko *La recordadora* antzerki lana aurkeztu zuten Imazek eta Txefo Rodriguezek kultura etxean. Aretoa lepo bete zen. /2004-03-05



AMAIA OLABE
Labidea denda

Labidea dendaren arduraduna da Amaia. Ospakizun berezia egin zuten Gatzagan; izan ere, urtebete egin zuten dendak eta Turismo Bulegoak. /2004-03-26



JUAN CARLOS BENGOA
Eskoriatzako alkatea

Euskaltelen zuntz optikoa erabiliz Teleskoren seinalea bideratzen zebiltzala azaldu zuen Juan Carlos Bengoak; legealdi honetan egitea proposatu zen. /2004-03-05

OSPAKIZUNA

Fagor Etxetresna Txikien Negozioak 25 urte bete zituen

Fagor Etxetresna Txikien Negozioak 25 urte bete zituen. Ospakizunen artean, Eskoriatzan enpresako langile eta bisitariak lantegia ikusteko aukera izan zuten martxoaren 5ean.

Guztira 200 lagun inguru joan ziren bisitaldi gidatura, antolatzaileren esanetan.

Lau hizlari aritu ziren enpresaren azken 25 urteak gogoratzen: Javier Gantxegi, Fernando Gomez Acedo, Pablo Mongelos eta Jesus Irure.

Eguneko ospakizunekin amaitzeko, langileak Gure Ametsa jatetxera joan eta guztiek batera bazkaria egin zuten. /2004-03-12



Urtemugako hitzaldia.

HEZKUNTZA

Filosofia berbagai izan zuten Eskoriatzan VI. Literatura Astean

HUHEZIn VI. Literatura Astea ospatu zuten martxoaren 8tik 12ra. Kant hartu zuten ahoan hizlariak; alemaniarra hil zela 200 urte bete zen. Madrileko gertarek azken hitzaldia bertan behertu utzi zuen; horretarako momentu aproposa ez zela adierazi zuten antolatzailerek. /2004-03-12

UDAL AURREKONTUA

Udal aurrekontua onartu zen martxoan; 5.216.000 euro guztira

Martxoaren 25ean onartu zuen Eskoriatzako Udalak aurtengo aurrekontua. 2003koa baino %11 txikiagoa da. Guztira 5.216.000 euroko aurrekontua izan du aurtengo Udalak. Zati garrantzitsu bat Santa Ana urbanizatzerako bideratzea ere adostu zuen udalbatzak martxoan. /2004-04-02

Villar

Ile apaindegia

Urte berri zoriontsuena opa dizuegu!

Olazar auzoa 9 • Tel.: 943 71 50 42 • ESKORIATZA

APIRILA



"Astean zehar ere hartu gura ditugu bezeroak, ez oporretan bakarrik"

MARIAN MARTIN/ ATERBE LANDETXXEA
2004-04-02



"Eskatzen duguna, lanek ahalik eta kalte txikien eragin ditzatela da"

PLASAGABASTER/ KALTETU ELKARTEA
2004-04-26

HILEKO ESALDIA

"Alegazioak-eta aurkeztu ditugun arren, kasurik egin ez digutela azpimarratu behar dugu"

J.C.BELOKI/AUZO ALKATE ORDEZKARIA
2004-04-26

HILEKODATUA

40

LAGUN JOAN ZIREN DONOSTIA ALDERA

Autobideak kaltetutako elkarte-ko kideek prentsaurrekoa eskaini zuten Donostian. Diputazio-koekin elkartu ziren. /2004-04-30



Errepublika garaia gogoratzeko erakusketa kultura etxean

Errepublika eta Espainiako gerrari buruzko erakusketa egin zuten kultura etxean. Lau hileko lana izan zuten antolatzaileek. Guardiako (Biasteri) Lagunen Elkarteak eta hainbat herritarrek utzitako materialarekin osatu zuten erakusketa. Pistolak, ganibetak, lehegailu handi bat... armen sailean; garaiko txanpon eta billeteak, komunisten zapiak... /2004-04-23


ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA ERAKUSKETAN

↑ Kultura etxeko erakusketak harrera ona izan zuen; garaiko argazkiak, lehegailuak... ikusteko aukera. /2004-04-30

'IPARRALDEA BERTAN' EKIMENEAN JENDE GUTXI

↓ Kultura hamabostaldiaren barruan jende gutxi gerturatu zen Gatzagan antolatutako ekimenetara. /2004-04-30


AIPAGARRI



JESUS ARROIA
Tiratzailea



XABIER GOMEZ
Parroko ohia



J. ORTIZ DE URBINA
Apaiza

Valentzian jokaturako plater-tiroko Errege Koparen lehen itzulian seigarren geratu zen *Matxain*. Gasteizen, Legazpin eta Iruen trebatzen da, esaterako. /2004-04-16

Eskoriatzako hainbat elbarri fisiko eta psikiko Salamancara joan ziren Xabier bisatzaera. Harreman estua izan zuen eurekin, eta ikusteko gogoz zeuden. /2004-04-23

Jesus arduratu zen eguneko egoitza bedeinkatzeaz. Inaugurazio ekitaldian izan ziren, gainera, Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak. /2004-04-30

GATZAGAKO UDAL AURREKONTUA

Udal aurrekontua onartu zen; 419.036 euro guztira

Apirilean onartu zuten 2004ko aurrekontua Leintz Gatzagan: 419.000 euro. Kopuru horretatik 30.000 euro Gatz Museora bidertu zuten; inbertsioen diru kopuru handiena inbertitu zen bertan. Bestalde, hirigintza antolaketa eta kudeaketak 24.000 euroko inbertsioa jaso zuten. /2004-04-02

BIGARREN LANDETXXEA

Sauna eta bainu turkiarra dituen landetxe berria

Landetxe berria ireki zuten Gatzagan: Aterbe. Mari Angeles Martin granadarrak eta Francisco Azkona arrasatearrak zaharberri zuten baserria. Lau logela ditu eta gainera, sauna eta bainu turkiarra jarri zuten atse den hartzeko bide aproposa dela jakinda. /2004-04-02



Exte berrituan egokitu dute herriko landetxe berria.

AUTOBIDEAREN AUZIA

Lur-jabeei laguntzeko hainbat puntu onartu zituen Udalak

Autobideak Eskoriatzatik pasatu eta hainbat kalte eragingo zituela ikusita, Udalak hainbat puntu onartu zituen lur-jabeei laguntzeko. Lurrak okupatzeko legezko arrazoirik ezean, Foru Aldundiari lanak geratzeko eskera egingo ziola agindu zien Udalak kaltetuei. /2004-04-02

AKEITA

t a b e r n a

Pintxoak eta ogitartekoak

TEL.: 943 71 50 94 • Santa Ana 23 • ESKORIATZA



MAIATZA



"Gurasoek eremu pertsonala zaindu behar dute, dituzten balioez gogoeta egiteko"

MAITE GARCIA / PSIKOLOGOA

2004-05-21



"60.000 euro Arlabaneko lurrak berdintzeko erabiliko direla entzun dut"

JOSE RAMON PEREZ / ALKATEA

2004-05-28



Atxorrotx Egun arrakastatsua

Atxorrotx Egun arrakastatsua ospatu zen maiatzaren 2an. Jende mordoia igo zen mendira urteroko ohiturari jarraituz. Gazte eta heldu, asko izan ziren mendira igotzera animatu zirenak.

Goizean goizetik, jendeak gorako bideari ekin zion. Aitzorrotzen magalean hartu zuten ondoren atseden askok, eguraldi ona aprobetxatuz. Bertsoak eta trikitixa izan ziren giroa alaitzen Aitzorrotzen.

Arratsaldean, berriz, herrian izan zuten hitzordua. Izan ere, Kaixo taldeak plazan zeudenak dantzan jarri zituen

Goizean mendian jarritako karpan saldutako pintxoak eta arratsaldean plazan saldutako patata-tortillekin jasotako dirua Atxorrotx GKErentzat eta Eskoriatzako gutxitu fisiko eta psikikoen taldearentzat izan zen. 2004-05-02

HILEKOESALDIA

"Indiano Etxea konpondu ezean, azkenean erori eta herriko historiaren zati bat galduko da"

JOSE RAMON PEREZ / ALKATEA

2004-05-28

HILEKODATUA

5

LAGUN ZAURITU ZIREN AUTO ISTRIPU BAKARREAN

Hilaren 3an Eskoriatza eta Gatzaga artean bi autok elkar jo zuten. Gatzagako errepidea itxi zuten ondorioz. /2004-05-07

EZEIZA ARETO-FUTBOLEKO NESKAK FINALERDIAN

↑ Eskola kirolaren barruan alebin mailako neskek finalerdira iristea lortu zuten Donostian. /2004-05-28

AUTOBIDEARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

↓ Kaltetutako eskoriatzarrak ez ziren gustura geratu Aldundiak alegazio gutxi onartu zituelako. /2004-05-28

AIPAGARRI



ROSA LASAGABASTER
Kirolaria

Aizkorriko mendi maratoian belaunean min hartuta egin zituen azken hamar kilometroak, eta hala ere, hirugarren geratu zen Euskadiko Txapelketan. /2004-05-28



ERRAMUN MARTIKORENA
Musikaria

Iparraldea bertan egitasmoaren barruan etorri zen Erramun Eskoriatzara. Kiroldegia bete egin zen musikariaren betiko abestekin gozatu eta abesteko. /2004-05-07



RAFA RUEDA
Musikaria

Eskoriatzako Gazte txean eskaini zuen Rafa Ruedak kontzertua. Doinu gogorretatik lasaietara pasa da musikaria. Jendea oso gustura egon zen emaldian. /2004-05-14

GIZARTE EKINTZA

Erretiratuentzako ortuak banatu zituen Udalak

Hamabi erretiratuk lortu zituzten Torrebasoko lurretan egokitutako partzelak. Bertan ortuak egiteko tokia egokitu zuen Udalak; hala euren aisialdia betetzeko asmoa gauzatu zuen. Aspaldi Ezker Batua taldeak proposatutako egitasmoa, eta maiatzaren 3an egin zuten lurrak esleitzeko

zozketa udaletxean. Hamabi lagunek agertu zuten lurrak lortzeko interesa, eta Udalak 19 lursail zituen prestatuta. Hala, guztiek eskuratu zuten lurra Almen gunearen gainaldean. Guztira hiru lursail egokitu zituen Eskoriatzako Udalak erretiratuek ortuak egiteko. /2004-05-07



Txabola ere badute tresnak sartzeko.

AURKIKUNTZA

Gerra garaiko obusa aurkitu zuten Hiruerreketa inguruan

Hiruerreketa inguruan Eskoriatzako basozainak obus barri aurkitu zuen. Gerra denborako leherkaria zen, eta ez da lehenengo aldia horrelako aurkikuntza ematen dela. 70 zentimetro zituen obusak eta egoera onean zegoen. Ertzainek eraman zuten azkenean leherkaria. /2004-05-07

OSPAKIZUNA

Lehenengo 'Zazpi elizateen martxa' arrakastatsua

Maiatzaren 30ean ospatu zen Zazpi elizateen martxa lehenengoz eta arrakastatsua izan zela eman zuten aditzera antolatzaileek. Mazmela, Zarimutz, Marin, Apotzaga, Gellao, Mendiola eta Bolibar lotzen dituen bideak eta herriaren zati diren elizateak hobeto ezagutzea zen helburua. /2004-05-30

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

943 71 48 45
607 94 89 84

web gunea: www.hemen-garbiketak.com

Urte berri on!

EKAINA



"Herriari garrantzia eman eta herritarrek batzea lortzen du Ferixiek"

ROSA ELIZBURU / IRAKASLEA

2004-06-04



"Ikusgarria da Euskal Jaiak nolako indarra hartu duen"

JOSEBA GABILONDO / EGAS

2004-06-25

HILEKOESALDIA

"Ikasleek lan txukuna egiten dute azoka egunerako; ardura handia hartzen dute antolaketan"

ROSA ELIZBURU / ANTOLATZAILEA

2004-06-04

HILEKODATUA

25

**URTE BETE ZITUEN
AUZO ETXE ELKARTEAK**

Apotzagako elkartearen urteurrena ospatu zuten hilaren 12an. Mus txapelketa, jolasak eta bazkaria egin zuten, esaterako. /2004-06-12



Aubidearen alegazioei buruz berba egitera, Donostiara

Protesta ekitaldia egin zuten autobideak kaltetutako hainbat herritarrek. Autoak hartu eta Aingeruardako biribilgunetik irten ziren; Ederlan parera joan-etorriak egin zituzten, auto-ilara luzeak sortuz. Bestalde, Donostian izan ziren kaltetuen ordezkariak, eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Lopez de Gerenurekin eta Jabier Zurriarainekin bildu ziren. /2004-06-04


GIRO BIKAINA VIII. FERIXIEN

↑ Jende ugari ikusi genuen kalean baserritar jantzita, eta kaleak jendez gainezka egon ziren. /2004-06-11

ABSTENTZIO HANDIA GATZAGAN

↓ Leintz Gatzagan Europako Hauteskundeetan abstentzio handia izan zen, %57,28k bozkatu zuten. /2004-06-18


AIPAGARRI



JOSE MARI ARKAUZ
Turroigilea



MANOLO MUÑOZ
Kirol Elkarte



EMILIANO BARANDIARAN
Euskaltzalea

VIII.Ferixien saria eskuratu zuen eskuriazar honek. Turroiak egiten ditu Arkauzek, aspaldiko errezetak erabilia. Alabarekin batera egon zen. /2004-06-21

Manolok esan zuen San Pedrotako pregoia. Ez da lehenengo aldia lan hori egin duena; duela 10 urte ere gauza berdina egiteko ohorea izan zuen. /2004-06-25

Aita Barandiarani omenaldia egin zioten. Jaio zela ehun urte bete dira aurten eta euskara eta musika esparruetan burubelarri aritu zen bere bizitzan. /2004-06-27

BILERA LEINTZ-GATZAGAN

Gatzagan egin zuen Mankomunitateak Osoko Bilkura

Mankomunitateko Osoko Bilkura egin zuten Gatzagan. Bertan, Zubillagako hiltegiaren inguruan eztabaidatu zuten. Udal bakoitzak hiltegiarekin zer egin erabakitzea adostu zuten. Bide batez, Gatzagako udaletxe aurrean elkartu ziren Hiltegia Bizirik plataformako kideak. /2004-06-30

IKUSKIZUNA

Diablos de Badalona taldearen suzko kalejira San Pedrotan

Kataluniatik, Badalonatik etortako talde batek suzko kalejira egin zuen hilaren 30ean. Kide bakoitzak mazo bat zuen eskutan, eta puntan piroteknia materiala jarri zioten. Bost pertsonaia irudikatu zituzten, infernuko pertsonaia. Infernua ekarri zuten herrira egun batez. /2004-06-30



Mauka luzedun kamisetak jantzita gerturatu ziren asko plazara.

ASTRONOMIA

Ilatargi taldekoek deituta Artizarra ikustera Gatzagara

Esne-bideko bigarren planeta, Artizarra, Eguzkiaren eta Lurraren artean jarri zela ikusteko jende ugari gerturatu zen Gatzagara. Ilatargi taldekoek teleskopioak jarri zituzten gertakaria hobeto ikusteko. Neurri bereziak hartu zituzten ikusleek, begilesioak saihesteko. /2004-06-21


Urte berri on guztioi!



Sukaldeko tresneria • Lapiko lasterrak • Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3 / Tel.: 943 71 41 31 / Eskoriatza 20540

Zorionak eta **urte** **berri on!**

FAGOR 

**ELEKTRATRESNA
TXIKIKO
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea z/g

Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)

URKULU 

**FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK**

**zorionak
eta
urte berri on!**



hurbila eta profesionala



Torrebaso Pasealekua, 16
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tel. 943 71 30 30
Fax 943 71 25 55
urkulu@cadena88.com
www.urkulu.com

UZTAILA



"Pertsona guztientzako egitaraua egin gura dugu Andramaixetarako"

JON SASIAIN / KULTURA ZINEGOTZIA
2004-07-16



"Alegazioak kontuan hartuko zituztela esan zuten; ez dugu ikusi horrelakorik"

PLASAGABASTER / KALTETU ELKARTEA
2004-07-16

HILEKOESALDIA

"Publizitateko irudiekin asmatutako espazioak sortu ditut, arte abstraktu eta figuratiboa nahasiz"

AITOR LAJARIN / ARTISTA
2004-07-16

HILEKODATUA

148

UME ESKORIATZAKO UDALEKU IREKIJAN

Uztailean Eskoriatzako 148 gazte txo aritu ziren bi astez udalekue-tan. Guztiak zaintzeko, 20 begirale behar izan zituzten. /2004-07-09



San Pedro jaietan jende gutxi baina giro polita egon zen

Jaiak aste barruan ospatzeak jende gutxiago adierazten du sarri; hala ere, primeran ibili ziren San Pedro jaietan herrian egon ziren eskoriatzarrek. Egitarau zabala izan zuten eskura; Malaje ikuskizunak jende ugari bildu zuen, Euskal Jaira ere lagun asko gerturatu zen eta pilota partiduak pilotalekua betetzea lortu zuen. Kale antzerkiak jende ugari erakarri zuen. /2004-07-02

AITZORROTZ KULTURA ELKARTEAREN EKIMENAK

↑ Hirugarren urtez herritarrei zuzendutako ekimenak antolatzen: pilota partiduak, erakusketak... /2004-07-09

LURREN DESJABETZEA HASI ZEN

↓ Protesta ekimena egin zuen autobideak kaltetutakoek elkar-teak desjabetzearen kontra azaltzeko. /2004-07-16


AIPAGARRI



EDURNE URIARTE
Arizmendi ikastola



AITOR LAJARIN
Artista



ANAITZ ALVAREZ
Gatzagara

Arizmendi ikastolak eta MUren hitzarmena sinatzera etorri zen Eskoriatzara. Kirolean oinarritutako bi titulazio berri eskaintzen dituzte herrian ondorioz. /2004-07-09

Eskoriatzarrak bere lan bat jarri zuen erakusgai Artiumen hileren 7tik abuztuaren 12ra. Gela bateko bi horma eta zoruaren zati bat hartzen zituen lanak. /2004-07-16

Anaitzen lana aukeratu zuten Andramaiak iragartzeko. Aizea Uribetxeberria eta Julen Alvarez bigarren eta hirugarren postuak lortu zituzten. /2004-07-16

ERAKUSKETA

Autobidearen inpaktuak ikusgai kultura etxean

Eskoriatza zeharkatuko duen autobidearen inguruko erakusketa ireki zuten kultura etxean ekainaren 29an eta uztailearen 14ra arte egon zen ikusgai. Autobideak sortu ditzakeen arazoak deskribapena eta kaltetuek jarritako alegazio eta proposamenak zeintzuk izan ziren egon zen ikusgai. /2004-07-02

SAN MARTIN EGUNA

Ohi baino jende gutxiago gerturatu zen San Martin egunera

Eguraldi bikaina lagun zutela eman zioten hasiera uztailearen 4an San Martin egunari. Meza entzun eta luntxa jateko aprobeztatu zuten bertaratutakoek. Hala ere, ohi baino jende gutxiago animatu zen Gatzagara. Izan ere, eguraldiak jendea kanpora joatera bultzatu zuen. /2004-07-09



Luntxa zain zuten meza entzuten amaitu orduko.

EMAKUME ELKARTEA

Zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuen Amuska taldeak

Ekainaren amaieran zuzendaritza batzorde berria aukeratu zuen Amuskak eta gai zerrendako puntu guztiak onartu zituzten. Agapi Morales, Maria Asun Arzaburu, Marian Aranburuzabala eta Mari Carmen Pagaldai izan ziren aukeratuak. Bederatzi kide dira guztira. /2004-07-09

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure zerbitzura
ESKORIATZA

*Ondo buka dezazuela
2004. urtea
eta hobeto hasi
urte berria!*

Mendrak
Txakolina

Tel.: 94 682 00 00
ELORRIO

ABUZZTUA

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

“Inoiz ez gara nahikoa Degurixa aldera joaten garen begirale kopurua, lan asko dago egiteko-eta”

IXA IRIARTE / BEGIRALEA
2004-08-23

6

KILOMETRO ASFALTATU ZITUZTEN

Eskoriatzatik Gure Ametsa jate-txeraino doan errepideak sei kilometro ditu, eta abuztuan asfaltatu zuten. /2004-08-07



Eskoriatza eta Gatzaga arteko lurra asfaltatu egin zuten

Aspalditik erabiltzaileek eskatzen zuten Eskoriatza eta Gatzaga arteko errepidea konpontzea. Hala, abuztuko lehenengo egunak aprobetxatu zituzten lanak egiteko. Provisa enpresak egin zituen lanak, eta Gipuzkoako Diputazioaren laguntza izan zuen. Askok erabiltzen da bide hori eta segurtasun kontuengatik hobetu zuten, besteak beste. /2004-08-07

MOZIOA

Kalamuaren erabilerari buruzko erabakia hartu zuen Udalak

Eskoriatzako Udalak kalamuari buruzko mozioa onartu zuen. PSE-EE alderdiko Iñaki Pierrugues zinegotziak aurkeztu zuen proposamena eta aho batez onetsi zuten guztiak; EA-EAJ, PSE, IU eta Elizateek baiezko bozka eman zioten proposamenari. Erabilerari pertso-

nalerako kalamua landatzea, farmazietan saltzeko eta erabilpen terapeutikorako arautzea eskatzen da bertan. Hainbat komunikabidek bere egin zuten albiste eta ondorioz, oihartzun zabala izan zuen erabakiak abuztuko lehenengo astean. /2004-08-03

KIROLA



JESUS ARRIABE
TIRATZAILEA

Europako tiro txapelketan aritu zen 'Matxain'

Andorran jokaturako Europako tiroketa txapelketan laugarren tokian geratu zen. Orain arte Europako txapelketetan eskuratutako posturik onena. Zorionak!



ARRANDEGIAK J. EGUREN

Arrain freskoa eta izoztua

Santa Marina 32. Tel.: 943 79 59 06. ARRASATE

Santa Ana 11. Tel.: 943 71 48 61. ESKORIATZA

ONDO PASA GABONETAN!



GATZA-GAIN Jatetxea

- ◆ Plater konbinatuak
- ◆ Ogitartekoak
- ◆ Espezialitateak:
 - Baserriko oilaskoa
 - Etxeko txorizoa eta okela ekologikoa



Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi!

943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA

IRAILA



"Orokorrean, gure gazteek informazio nahiko dute haurdunaldiei buruz"

NEREA ALZOLA/ HUHEZIKO IRAKASLEA
2004-09-20



"Jaietan giro polita jartzeko ezinbestekoa da herritarren parte-harzea"

JON SASIAIN/ KULTURA ZINEGOTZIA
2004-09-03



Jende gutxi baina giro polita aurtengo Andramaixa jaietan

Irailaren 3an eman zioten hasiera Gatzagan Andraixa jaietara. Lehenengo egunean jende asko ibili zen herrian, izan ere, herriko plazan bost talde aritu ziren. Bestalde, Umeen eguna ere ospatu zuten, puzgarri eta ohe elastikoak izan zituzten aukeran, besteak beste. 26. Dorletako Ama txirrindulari proba egin zen eta otxandiarrek herria bisitatu zuten azken egunean. /2004-09-10

HILEKOESALDIA

"Udala eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren ondorio dira errenta sozialeko etxeak"

JAVIER MADRAZO/ SAILBURUA
2004-09-24

HILEKODATUA

60

OTXANDIAR OINEZ JOAN ZIREN GATZAGARAINO

Andramaixetako azken egunean ohiturari jarraituz, otxandiar eta gatzagarrek pilota partiduak egin zituzten. /2004-09-17


GATZAGAKO ERRETIRATUEN EGUNA

↑ Giro bikainean bazkaldu zuten 29 lagunek eta Narciso Beitia eta Satur Berrostegeta omendu zituzten. /2004-09-26

ALEGAZIOEI BURUZKO AIPAMENIK EZ

↓ Autobide proiektuari jarritako alegazioei buruz ez zuten ezer esan lehen harria ezarri zuten. /2004-09-24

AIPAGARRI




JESUS ARROJABE
Plater tiratzailea

Seigarren geratu zen Valladolideko Kategorietan banatutako Espainiako plater tiroketa txapelketan. "Ondo dago, baina ez naiz oso gustura geratu". /2004-09-10



JAVIER MADRAZO
Sailburua

Herrira etorri zen Javier Madrazo Intxaurtxuetako babes ofizialeko etxetako lanak ikustera. Diruz okerren dardenenentzako izango dira. /2004-09-24



J.G. DE TXABARRI
Ahaldu nagusia

Gipuzkoako ahaldu nagusiak autobidearen lehen harria jarri zuen Eskoriatzan. Kaltetuek alegazioei buruz ezer esan ez izana kritikatu zioten Txabarri. /2004-09-24

INAUGURAZIO EKITALDIA

Autobidearen lehen harria jarri zuten Marin inguruan

Eskoriatzatik igaroko den autobidearen lehen harria ezarri zuten irailaren 16an. Bertan izan ziren kaltetuen elkarteko kideak, eta ez ziren oso gustura geratu ekimenarekin. Bestalde, han egon ziren Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta Ramon Rabanera dipu-

tatuak. Bi ahaldu nagusiek hitza hartu zuten eta kaltetutakoek ez ziren oso konforme geratu, esaterako, alegazioei buruz ezer esan ez zutelako. Momentu horretan oraindik negoziatzen zihardute la gogorarazi gura izan zuten elkarteko kideek. /2004-09-24

DIRU-LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak 1.273.000 euro eman zizkion Udalari

Eusko Jaurlaritzak 1.273.000 euro Eskoriatzara bideratuko zituela iragarri zuen. Gainbeheran etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta berpizteko laguntza izan zen. Udalak Aranburuzabala kaleta eta Dorleta eta Santa Marina auzoak

birgaitzeko laguntza eskatu zizkion Eusko Jaurlaritzari, eta horren ondorio izan zen dirulaguntza. Eskatzen zutenaren %30a eman zion Eskoriatzako Udalari. Esandako lanez gain, beste lan batzuk egiteko asmoa erakutsi zuten udal ordezkariak. /2004-09-03

OSASUNA

Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina hasi zen

Gaixotasuna prebenitzeko helburua du gripearen aurkako txertatze kanpainak, eta hilaren 31ra izan zuten aukera Eskoriatzan hartzeko. Batez ere 65 urtetik gorako pertsonen eta diabetiko eta gaixo kronikoen zuzendutako kanpaina, defentsak makal dituztenei zuzendutakoa izan zen. /2004-09-24



Naturarekin bat eginik!



- Jatetxea
- 7 txabola guztiz prestatuta
- Urte osoan zabalik



Zorionak eta urte berri on!

Informazioa eta erreserbak: 943 71 51 64 eta 617 78 74 32 LEINTZ GATZAGA

URRIA



"Patinatzeko plataformaren inguruan zikinkeria biltzen zen eta keza asko egon dira"

JON SASIAIN/ KULTURA ZINEGOTZIA

2004-10-01



"Kanariar Uharteetako neska bat egon da urriko zubian Aterben"

MARIAN MARTIN/ ATERBE ATERPETXEA

2004-10-15

HILEKOESALDIA

"Madril eta Bartzelona aldean ere saltzen ditugu ibarreko elikagaiez ekoiztutako produktuak"

SUSANA AIASTUI/ JAKION

2004-10-22

HILEKODATUA

13

PERTSONA HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORREAN

Ikasteko gogoz dauden helduei zuzendutako eskoletan, hamahiru lagunek eman zuten izena eta bi talde daude ondorioz. /2004-10-01



'Anboto'-ren aldeko mobilizazioak

Marixol Iparragirre eskoria-tzarra atxilotu zuten urriaren 3an Biarnon (Salies), ustez ETako kide izateagatik.

Atxiloketa egunean kale bilkura egin zuten berrehun bat lagunek herriko plazan, eta elkartu bezain pronto ertzainak agertu eta bertan elkartutakoak sakabanatu zituzten. Ondorioz, bi pertsona zauritu ziren. Hurrengo eguneko elkar ateratzean, ere, pertsona bat ospitalera eraman zuten Ertzaintzaren kargak eragindako antsietate-krisiaren ondorioz.

Bestalde, Eskoriatzako Udalak mozio bat onartu zuen, non Marixolen familiari elkar-tasuna adierazi eta atxilotuak jaso zezakeen tratua eraginar-ruko ardura erakutsi zuten. Askotariko erreakzioak eragin zituen ezohiko osoko bilkura hartan onartutako mozioak. /2004-10-08

JENDE ASKO MENDI BIZIKLETA ZEHARKALDIAN

↑ Eskoriatzako XV.Mendi Bizikleta Zeharkaldiaren 43 kilometroak egiteko 169 lagunek eman zuten izena. /2004-10-22

'U' ITXURAKO PLATAFORMA GAIZKI ZAINDUA

↓ Herritarrak aspertu egin ziren patinatzeo plataformaren inguruan sortzen zen zikinkeria eta zaratarekin. /2004-10-01

AIPAGARRI



AITZIBER GOROSABEL
Gatz Museoa

Museoak urriko zubian, uste baino bisitari gehiago jaso zituela eman zigun aditzera; eguneko 30 laguni azalpenak eman zizkien Aitziberrek. /2004-10-15



IÑAKI AGIRIANO
Bibliotekaria

Biblioteka Sistema Nazionalan sartzeko, hainbat lan egin behar izan zituen. Arazo gehien sortu zituen lana ber katalogazioa izan zen Iñakirentzat. /2004-10-01



ANA ESNAL GUREL

Iruñera joan ziren elkarteko 34 kide. Unibertsoari buruz gehiago ikasteko Planetariuma bisitatu zuten; Ana izan zen antolatzaileetarikoa. /2004-10-22

KIROLA

120 lagunek hartu zuten parte Mendi Bizikleta Ibilaldian

Bigarren aldiz ospatu zuten Gatzagako Mendi Bizikleta Ibilaldia eta arrakastatsua izan zen; 120 lagunek hartu zuten parte. 25 kilometroko ibilbidea egin zuten parte-hartzaile horiek; hala ere, bigarren ibilbide bat ere prestatu zuten antolatzaileek, gazte-oxoenentzako. 20 pertsonak egin

zuten ibilbide hori. Antolatzaileak oso pozik agertu ziren bigarren aldiz ospatzen zen ekimenarekin.

Bukaeran, indarberritzeko aukera izan zuten guztiek: salda beroa eta hainbat jaki prestatu zituzten bizikleta gainera igotzen animatu zirenentzat. /2004-10-08



Parte-hartzaileak zeharkaldi hasieran.

GIDA

Eskoriatzako zerbitzuen gida kaleratu zuten

Eskoriatzako zerbitzuen gida aurkeztu zuten Maider Otamendi Kultura batzordeburuak eta Javier Zugasti Gazteria arloko zinegotzi arduradunak. Herrian bizimodua egiten dutenek bertan aurki dezaketenaren berri emateko helburuz kaleratu zuten; 40 ekimenen berri ematen zen. /2004-10-01

BIBLIOTEKA

Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalan sartu zen Biblioteka

Biblioteka Euskadiko Liburutegi Sistema Nazionalaren barruan sartu zen. Hala, hainbat aldaketa egin zituzten urrian; liburutegiko fondoa berretiketatzea, esaterako. Mailegu zerbitzua eten egin zuten ondorioz eta astebate iraun zuen egoera horrek Eskoriatzako Bibliotekan. /2004-10-01



Larmanta

Lentzeria
umeen moda
eta opariak

Josunek eta Maitek **gabon zoriontsuak** opa dizkizute!!

Tel.: 943 71 53 87
Gaztainadui 21
ESKORATZA



AZAROA



"Indigenek asko eskertzen dute Eskoriatza moduko herrien laguntza"

JAVIER MATAS/ PRESO LAGUNTZAILEA

2004-11-05



"10 kilo hirugihar, 80 kilo irin eta beste 30 kilo txistor prestatu ditugu"

AMAIA OLABE/ SORGINAK TALDEKOA

2004-11-19

HILEKOESALDIA

"Arazoa eskoriatzarrek herrian aurki dezaketena kanpoan erosten dutenean hasten dela esan daiteke"

MAITE ZUBIA/ DENDARIA

2004-11-26

HILEKODATUA

20

LAGUN ZEBILTZAN CAPOEIRA IKASTEN

Igor Ezpeleta eskoriatzarra irakasle zutela 20 lagun zebiltzan Eskoriatzan brasildar doinuekin capoeira ikasten. /2004-11-12



Hotzak kikildu ez eta jende ugari San Milixan ferian

Hotza egin arren, jende ugari gerturatu zen beste behin ere San Milixan azokara. Gatzagako pilotalekuan hamabost artisauk euren txokoa egokitu eta batek baino gehiagok zuzenean nola lan egiten duten erakutsi zuten. Bestalde, *sorginek* jatekoa prestatu zuten eta trikitilarien doinuek giroa berotzen lagundu zuten. /2004-11-19

GATZAGAKO PILOTA PARTIDUAK

Maila polita erakutsi zuten bi egunetan egin ziren partiduetan aritu ziren zortzi bikoteek. /2004-11-05

EUSKARAZKO JOLASEN IKASTAROA

Ikastaroan inoiz baino jende gutxiagok hartu zuen parte; zazpi pertsonak bakarrik eman zuten izena. /2004-11-26

AIPAGARRI



CECILIA SANTIAGO
Txiapastarra

Mexikoko kartzeletako egoera gordina-
ren berri ematera gerturatu zen Cecilia Eskoriatzara. Presoei, eta batez ere indigenei laguntzen dihardu. /2004-11-05



ENEKO POU
Mendizalea

Eneko Gatzagan izan zen muturreko eskia-
ri buruz berba egiten. Gainera, diapositiba emanaldia eskaini zuen eta jende ugari gerturatu zen Garro jauregira. /2004-11-13



ISA SARABIA
Saskibaloia jokalaria

Isak Eskoriatzako saskibaloia taldean jokatzeko
zuen eta lesio baten ondorioz, taldea utzi behar izan zuen. Taldekideek omenaldia egin zioten Isari. /2004-11-26

ERAKUSKETA

Aurora borealak zer diren ikasteko aukera Aranzadiren eskutik

Erakusketa interesgarria egon zen Kultura Etxean azaroaren 4tik 14ra bitartean. Aranzadi elkarteak jarritako erakusketan aurora borealei buruzko argazkiak eta bideoa ikusteko aukera egon zen; hala, fenomeno nola sortzen den ikasteko aukera interesgarria. /2004-11-05

MUSEO ESKOLA

Ibarraundi jauregiak atear ireki zituen berritua izan ondoren

Datorren urtean Museo Eskola Ibarraundi jauregira eramango dute, eta azaroan eraikin berriaren atear ireki zituzten. Egoitza ikusteko aukera egon zen eta hiru solairuetan egokituko dituzten hiru aretoen berri eman zuten: ibarreko historia izango da nagusi Ibarraundin. /2004-11-19



Ibarraundi jauregi inguruak egokitzea falta da.

MOBILIZAZIOA

Herriko komertzioak indartzeko bat egin zuten dendariak


Herriko hainbat dendari batu egin ziren herriko komertzioak bultzatzeko. Azkenaldian salmenta kopuruak behera egin eta herri-
tarrek Eskoriatzako dendetan beharrezko eraketak kanpoan egiten dituztela ohartuta elkartu ziren. Hainbat ekimen egiteko asmoa erakutsi zuten /2004-11-26

PAGALDAI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Gaztainadui 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORIATZA

Zorionak denoi!

ABENDUA



"Areto futbolera herritarrek gerturatzeko 'Eskoriatza Hiria' antolatu dugu"

MANOLO MUÑOZ / ESKORIATZA KE
2004-12-03



"Erakusleiho lehiaketaren kalitatea jaitsi delako ez dugu antolatu aurten"

A. UNZUETA / KULTURA TEKNIKARIA
2004-01-17



Herriko berbeta aztertzeak akordioa

Herriko euskara ikertzeak asmoz, Badihardugu euskara elkartearekin kontratua sinatu zuten Gatzagako eta Eskoriatza udalek; Jose Ramon Perez eta Juan Carlos Bengoak, hurrenez hurren. Debarroko euskara elkarteak ordezkaria Asier Sarasua izan zen.

Deba Ibarreko Ahotsak proiektuari babesa eman zioten hala. Izan ere, Ibarreko berbeta edo hizkera berreskuratzeak eta gordetzeak du helburu proiektuak. Sinadurarekin, hiru urtetarako lankidetzak hitzarmena adostu zuten; bide batez, babesa eta dirulaguntza eman zioten.

Orain arte herri bakoitzak bere kabuz lana egin arren, elkarlanean koordinazio handiagoa lortuko da. Dagoeneko ibarreko 17 herritan aurrera darama Badiharduguk proiektua. /2004-12-03

HILEKOESALDIA

"Lokalak etxe bihurtzeko araua aldatuz, espekulazioa nolabait gelditzea lortu gura dugu"

J. C. BENGOA / ALKATEA
2004-12-03

HILEKODATUA

17

EMAKUME AMUSKAREN SUKALDARITZA ESKOLAN

Abenduaren 13tik 15era egindako sukaldaritza ikastaroan 17 emakume aritu ziren Gabonetako jakiak prestatzen. /2004-12-17

'ESKORIATZA HIRIA' ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Lehenengo aldiz antolatu du Kirol Elkarteak aurten txapelketa, eta jende asko gerturatu zen ikustera. /2004-12-07

MARIXOL IPARRAGIRRE PRESOAREN EGOERA

Inkomunikazio egoera eta tratu txarrak jasan zituela salatu zuen preso eskoriatzarrak gose eta egarri grebaz. /2004-12-09

AIPAGARRI




ASIER SARASUA
Badihardugu elkarteak

Deba Ibarreko Ahotsak proiektuaren arduraduna da eta Eskoriatzan egon zen herriko hizkera berreskuratzeak helburu duen akordioa sinatzen. /2004-01-03



IDOIA URANGA
Aktorea

Euskararen egunean Greban gaude antzez-lana ikusgai egon zen eta Idoia Urangak hartu zuen parte bertan. Besteak beste, Goenkalan lan egin du Idoiak. /2004-12-03



XANTI IPARRAGIRRE
Herritarra

Xanti Iparragirrerri elkarrizketa egin zion Amets Arzallusek ARGIA astekarrian, azaroko azken alean. Lehenengo orrian agertu zen Xanti. /2004-11-03

PROTESTAK

Marixol Iparragirre presoak gose eta egarri greba egin zuen

Eskoriatzako preso Marixol Iparragirrek tratu txarrak salatu zituen gose eta egarri greba egin. Urriaren 3an atxilotu zuten Anboto, eta urriaren 5etik isolatuta egon dela salatu zuen Askatasunak. Hainbat herritarrek eskoriatzarrari elkartasuna adierazi guran, gose eta egarri greba eta

txandakako itxialdiak egin zituzten udaletxean. Abenduaren 8an Fresneseko ospitalera eraman zuten eta serum edo sueroa jarri zioten; ondorioz, bertan behera utzi zuen protesta. Askatasunak prentsaurrekoa eskaini zuen herrian egindako ekimenei buruzko gogoeta egiteko. /2004-12-09



Elkartasuna adierazi zioten Marixoli.

INFORMATIKA

Datuak babesteko sistema berriak ezartzea erabaki zuten

Gatzagako Udalak bertako datuak hobeto babestuta egotea gura du, eta hala, programa informatiko berriak jartzea adostu zuten abenduaren 2ko ohiko osoko bilkuran. Nahiz eta datuak eskuratzeok sarbidea nahiko kontrolatuta egon, badaezpada ere ezarriko dituzte. /2004-12-10

GABONAK

Baserriz baserri abesten joan ziren gazte eta helduak

Gatzagako gaztetxoak baserritar jantzita baserriz baserri joan ziren abesten. Trikitilariak ere han izan ziren, euren doinuekin giroa alaitzen. Baina ez ziren bakarrik egon; ibilbide guztian Olentzero izan zuten lagun. Ondoren, guztiek bazkaria egin zuten elkartean. /2004-01-24

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza • 943 71 46 71

ONDO HASI URTEA!

Eskoriatzar danoi Gabon zorientsuak eta urte barri on!

